

HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

241 . Zenb.


1994.eko Urria
315 pta./14 libera
(B.E.Z. barne)

HEGAZTI ERRALDOIAK NAFARROAN

ADAP, gartzelatupei laguntzeko elkartea



ALFONSO ESTEBAS



ARGAZKIA: X. ELGEZABAL

2 Eusko Jaurlaritzak Enpresak **Eratzeko** Gazteentzako Ideia-Lehiaketa antolatzen du. **Saritu** guztiak, ordea, ez dute gero enpresarik sortzen. Alfonso Estebasek, Javier Estebasek, Javier Zuaznabarrek eta Bernardo Amonarrirek, bai, sortu dute. Enpresaren izena Ideza Constructores S.L. da. Laurak ingeniariak dira. Mendiko txirrinduentzako koadroak saldu nahi dituzte. Baina lehendabizi diseinatu egingo dituzte. Horretan ari dira orain, pieza **bakarreko** koadro bat diseinatzeko, eta, diseinatu ondoren, ikerketa bat egingo dute, ea salmenta errentagarria den. Eta, horrela bada, eurak hasiko dira koadro berezi hori **labe** batzuetan egiten, lantegi batean, karbonozko fibrarekin, «compositerekin»: «**Asko jota**, diseinuak zortzi bat hilabete eramango ditu» esan digu Alfonso Estebasek. Bizikletaren eserleku azpiko **hodia** ere diseinatzeko ari dira.

Koadro hauek egiteko lantegia **errentan hartuko** dute. Alfonsok esan digunez, koadroa diseinatu **osteko** inbertsioa 50.000.000 pezetakoa da: «Ez da horrenbeste ere» bota digu. Hasiak gara mugitzen kredituak eta diru-laguntzak lortzeko. Gauzak bide onetik badoaz, 1.800 bat koadro salduko ditugu urtean. Orain karbono-fibrazko koadroak EEBetatik eta Koreatik ekartzen dituzte, eta gero hemen jarri **gurpilak** eta». Lau gazte hauen koadroak 800 bat gramo pisatuko ditu. Bestalde, kotxeentzako aleroiak ere egingo dituzte **agian**. Eta, beharbada, Andres Vilariñoren bidez, kotxe-lantegiekin jarriko dira harremanetan lau enpresariok.

ERATU.- Antolatu, moldatu.

Organizar.

SARITU.- Premiado.

BAKAR.- Unico.

LABE.- Horno.

ASKO JOTA.- Como mucho.

HODI.- Tubo.

ERRENTAN HARTU.- Alokatu. Tomar

en alquiler.

OSTEKO.- Ondorengoa.

GURPIL.- Pirrila. Rueda.

AGIAN.- Beharbada, apika. Tal vez.

IKUSMIRAN ERREPORTAIA ELKARRIZKETA

ERREPORTAIA LABURRAK 2 ERREPORTAIA BAI, ESAN 2 ELKARRIZKETA

PORRUSALDA 2 ERREPORTAIA HAU MUNDUA 1 2 DISKOAK 2 LIBURUAK 2 3 ZOKOMIRAN

ERREPORTAIA EUSKARA LANTZEN TESTA ERREPORTAIA IPUINA

JOLASEAN ZINEA

KOMIKIA

SOLUZIOAK HOROSKOPOA 3

Alfonso Estebas 2	2
Hegazti erraldoiak Nafarroan 3	4,5
Juan Maria de Olaizola: «Protestantismoari esker asko ikasi dut Euskal Herriaz» 3	6,7,8,9
Bilboko Plaza Berria, trukearen azken tokia 3	10,11
.....	12
Robert Louis Stevenson 2	13
.....	14,15
Edurne Ormazabal: «Lanpostuen tartea bereziki inportantea da»	16,17
.....	18
Minbizia: mamua otzandu nahian 3	19,20,21
.....	22
.....	23
.....	24
Julia Chavarri: «Ijitoei ere beren kultura onartu behar zaie»	25,26,27
ADAP, gartzelatuei laguntzeko elkarteak 3	28,29
Egañaren loak zenbat balio duen! (Rufino Iraola) 3	30,31
Berritsua al zara? 2	32
Atzerrian bizi den herri isildua 3	33,34,35
Apaiz baten nekeak eta penak (Imanol Sorondo. Hernaniko Udal Euskaltegia) 3	36,37
.....	38,39
Hainbat filme zenbait diskotan bildurik (Begoña del Teso) 3	40,41
KAOPORREX eta ume zirin batzuen istorio eragabekoa. (Roberto Garay) 3	42,43,44,45
.....	46
.....	47

HABE MAILAKA IRAKURRI

Irakurle hori:

Dagoeneko badakizu aldizkari honetako erreportaiak eta zenbaki bat dutela artikuluen zailtasuna adierazteko. Beraz, eta HABEren programazioa oinarri, zailtasun-mailak 1 2 3 4 zenbakiak ipiniz adierazten jarraituko dugu. Dena den, ez nahastu programazioaren urratsekin.

HABE

Helduen Alfabetaze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna



© Autonomi Elkarteko Ad-
ministrazio Orokorra: HABE.
Tel. (943) 41 26 00
Faxa: (943) 41 26 01
ERREDAKZIOA:

Iñaki Ugalde
Asis Eizmendi
Ion Imanol Iturrioz

MARRAZKIGILEA: Enrike La-
rrarte

AZALEKO ARGAZKIA:
Xabier Elgezabal

IRARKOLA:

Artes Gráficas
Rontegui S.A.L.

LEGEZKO GORDAILUA:

BI-2251/81
ISSN: 0212-6788

HEGAZTI ERRALDOIAK NAFARROAN

3 Hegoafrikatik Zizur Txikira etorri ziren duela sei bat hilabete. Bi metroko ostrukakumeek Nafarroako egun beroetara ohitzeko **astia** izan dute iadanik. Orain neguko hotza eta elurra **jasan** behar. Nafarroako sei ostruka hauek ez daude zoologikoan, **eper**-granja batean baizik. Helburua ostruka-granja bat sortzea da. Hegoafrikatik arrautzak ekarri eta Nafarroan ostrukak **hazi**. Zizur Txikian munduko hegaztirik handienak jaiotzen ikusiko ote ditugu laster?

Futbol-zelai txiki baten tamainako **itxituran** daude Benito, Nikolas eta lau ostruka emeak —emeek ez dute **nonbait** izenik—. Zaindariak ikusitakoan, berehala hurbildu dira, **kuxkuxeroak** baitira oso. *Jana ekartzera ote datoz?* beren artean. Eta Alfredok, beste askotan bezala, **saskia bete sagar** bota die hesiaren beste aldera. **Hura jan beharra!** Lepo luzeak makurtu eta eztarrian behera joan dira sagarrak: bat, bi, hiru, lau... Sagarrak eztarrian trabatuta

gelditu zaizkie, lepoa handituta: «Sugeek bezala egiten dute —beste zaindariak—. Oso-osorik **iresten** dituzte, hortzik ez dutelako. Baina jan... denetik jaten dute». Orain bizi diren itxituran oso belar luzea omen zegoen ostrukak iritsi zirenean. Berehala utzi zuten orain dagoen bezala, belar-izpirik gabe, dena **soilduta**. Inguruko pinuetako hostoak ere ari dira **bakantzen**, hain dira **gosetiak**. Eta ez da jaten gutxi ematen dietelako. Letxuga-zakukada bat, hiru ontzikada-sagar eta kilo t' erdi

pentsu bakoitzari eman diete gaur. Ez da harrigarria, beraz, hegaztiek gora eta gora egitea.

Ehun kilotik gora

Ehun kilotara iritsiak dira iadanik, eta bi metrokoak edo badira. Bi metro?... Bi metro, bai. Eta, **heltzen** direnean, bi metro t' erdira ere iristen dira, baita 180 kilo hartu ere. 180 kiloko hegaztiak, Jesus, Maria eta Jose! Ostruken inguruko guztia da erraldoia, neurriz kanpokoa.




ARGAZIAK: X. ELGEZABAL

HEGAZTI. - Ave.
ERRALDOI. - Gigante.
ASTI. - Beta, denbora.
JASAN. - Nozitu, pairatu. Soportar.
EPER. - Perdiz.
HAZI. - Criar.
ITXITURA. - Hesia. Cercado.
NONBAIT. - Dirudienez, antza. Al parecer.
KUXKUXERO. - Curioso/a.

SASKIA BETE SAGAR. - Un cesto de manzanas.
HURA JAN BEHARRA! - ¡Qué manera de comer!
IRENTSI. - Tragar.
SOILDU. - Pelar.
BAKANDU. - Urritu, gutxitu. Escasear, disminuir.
GOSETI. - Gose+ti. Hambriento. -Ti atzizkiak joera adierazten du.

Adibidez: negarti, beldurti, lotsati...
HELDU. - Llegar a la madurez.
OSKOL. - Azala. Cáscara.
ARRESKE. - Hembra en celo.



Ostrukak kuxkuxeroak dira oso.

Arrautzak kilo f' erdi-bi kilokoak izaten dira, bakarrarekin hamalau lagunentzako tortila egiteko modukoak. **Oskola** lodi-lodia izaten da, hiruzpalau milimetro bai. Beraz, ez da erraza puskatzen. Esan digutenez, batzuetan **zesarea** ere egin behar izaten dute txorikumeak ateratzeko. Oraingo, dena den, horrelako arazorik ez dute Zizurren. Hegoafrikatik ekarritako hegaztiak ez dute oraindik arrautzik egin: «Ea udaberrian hasten diren! Lehengo batean ostruka eme bat **arreske** zebilela zirudien» dio zaindari gazteenak.

Ostruka-granja bat sortu nahi dute

Hegazti poligamoa denez, **bina eme** jarri dizkiete arrei, eta, beste ikuspuntutik ikusita, bi ementzako ar bakarra. Garaia iristen denean, lur-sail hau **bitan zatituko** dute **liskarrik** egon ez dadin. Gauzak behar bezala gertatuz gero, lau eme horiek urtean 30-40na arrautz inguru

egingo dituzte. Baina Martin eta Javier Elia enpresarien asmoa ez da arrautzak Nafarroan **errutea** bakarrik. Batez ere ekarri egin nahi dituzte, Hegoafrikatik ekarri eta hemen, eperrentzat duten inkubagailuan, eduki jaio arte. Bostehun bat arrautz **ekartzekotan dira**. Arrautzak ekartzeko baimena lortzea, ordea, ez omen da erraza. **Aitzindari** izateak badu alderdi txarrik. Denbora asko daramate paper horien zain.

Ostrukak hondakin gutxi

Ostrukak zertarako? Zoologikoetara eramateko? Ezta pentsatu ere! Ostrukak ez dira erakusteko. Jende askok etorri nahi zuen Zizurrera ikustera, baina ez dute granja zoo **bihurtu** nahi. Saltzeko nahi dituzte, beste granja batzuei saltzeko. Frantzian, Suitzan eta beste herrialde batzuetan badira horrelako granjak. Izan ere, ostruka oso hegazti errentagarria omen da. Haragia jan egiten da. Juanjo Garcia **albaiteroak** dioenez, proteina askokoa da eta koipe gutxikoa, %1-2 koipe besterik ez. **Larrua**

oinetakoak, poltsak, gerrikoak... egiteko erabiltzen dute. Lumak —luma eder luzeak dituzte— jantzigintzarako aproposak dira. Eta arrautz azala esku-lanetarako oso egokia da, gogorra baita. Etxeak **hornitzeko** ere ez dira batere itsusiak, egia esan. Arrautzak **zenbat egiten duen?** Hegoafrikako granjetan hiru mila pezeta bakoitzak. European jarrita, gehiago jakina! Bada hor, beraz, irabazpiderik.

Ostrukak udaberrian etorri ziren Nafarroara, eta ez dute arazo handirik izan bertara **jartzeko**. Izan ere, paraje beroko hegaztia da: Namibia, Hegoafrika, Ekialde Hurbila... «Hala ere, **egun sargorietan** —dio Alfredok— ikusi izan ditut nik hegoak piskat astintzen freskatu nahian. Hango beroa ez dakit nolakoa izango den, baina hemengo beroa ez da samurra». Orain negua datorkie, **elurteak**, izozteak... Dena den, Suitzan granjak jartzen badituzte, Nafarroan errazago ohituko direla uste dute. Badute, bestalde, **aterpea** egun hotzetarako.

Bi metro luzeko txoriak dira

Argazkilaria Benitoren ondora hurbildu da eta, makurtuta, behetik gora argazkia egin. Kontuz ibiltzeko esan diote, ostikoak goitik behera ematen dituztela. Baina patxadan dago Benito kamararen aurrean, aktore asko baino hobeto. Ez du erasotzeko tentaziorik izan. Nafarroan daudenetik oso lasai daude. Ez dute nonbait arriskurik ikusten. Eta beharbada horrexegatik ez dute burua lurrazpian gordetzen. Ostrukek horixe egiten omen dute, arriskua ikusten dutenean. Horretan badute **gizakiaren** antz piska bat. Beste honetan ez, ordea: bisitaldia bukatutakoan, nolako hots-mota egiten duten galdetu behar izan diegu zaindariei. Izan ere, isil-isilik egon dira denbora guztian.

BINA EME.- Bakoitzari eme bat. Una hembra a cada uno.
BITAN ZATITU.- Bi zatitan partitu, erdibitu. Dividir en dos partes.
LISKAR.- Borroka, sesioa. Disputa.
ERRUN.- Arrautzak egin. Poner huevos.
EKARTZEKOTAN DIRA.- Ekartzeko asmoa dute.
AITZINDARI.- Pionero/a.

HONDAKIN.- Zaborra. Residuo, resto.
BIHURTU.- Bilakatu. Convertir.
ALBAITERO.- Veterinario.
LARRU.- Piel.
OINETAKO.- Hanketakoa.
Calzado.
HORNITU.- Apaindu. Adornar.
ZENBAT EGITEN DUEN.- A qué precio se vende.

JARRI.- Ohitu, moldatu. Adaptarse.
EGUN SARGORI.- Día de bochorno.
ELURTE.- Elur+te. Nevada, época de nieve. Era berean: izozte, eurite, gerrate...
ATERPE.- Ater+pe. Cobertizo. Era berean: elizpe, arkupe, zuhaizpe...
GIZAKI.- Ser humano.

JUAN MARIA DE OLAIZOLA: «Protestantismoari esker asko ikasi dut Euskal Herriaz»

3 Hitz egiteko eguna jarri eta Juan Maria de Olaizolaren etxean azaldu ginenean, labetik atera berria zen «Elizen Arteko Biblia»ren euskarazko itzulpena zuen batez ere gogoan, eta hartaz egin zigun galde, ea ezagutzen genuen. Eta beste liburu baten **zirriborroa** ere erakutsi zigun. Oso izen erakargarria izango duena: Itsasoko Nafarroa. **Ahaztuxea** zuen, **ostera**, gu hara eramán gintuen gaia, Euskal Herria eta Protestantismoa. Izan ere, gai hori **jorratuz** irundar honek idatzitako liburua, lehen argitalpena, Pamiela argitaletxean, aspaldikoa baita. Bigarren argitalpena **laster** da kalean. Baina, esan bezala, egingo zuenaz hasi zitzaigun hizketan, liburu berriaren pasarte batzuk irakurritz. Nahi duzue zerbait irakurtzea? —galdetu zigun liburuz **jositako** bere langelan.

HABE. - Bai.

JUAN MARIA DE OLAIZOLA. - Nafarroako Erreinuaren **berezko** portuak izan ziren Hondarribia, Pasaia, Donostia eta Baiona. Nafarroari itsasorako bidea ematen baizioten, beren urak Mediterraniara isurtzen dituzten lurren osagarri ziren ekonomian. Eta hau ez da ia inoiz esaten: «Lapurdiko Bizkonderri Nafarra, 1023. urtetik 1193. era arte Baiona, Lapurdun izena zuen orduan, Laburdiko Bizkonderri Nafarraren eta Behenafarroako **hiriburua** izan zen... XI mendearen erdialderako Baionako agintariak Vasconiako Dukeen **baitan** zeuden, eta denak Nafarroako errege zen Sancho III.aren zerbitzariak ziren. Eta abar.

HABE. - Nolakoa izango da Nafarroari buruzko liburu hori?



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

ZIRRIBORRO. - Borrador.

AHAZTUXE. - Ahaztu samarra. Bastante olvidado.

OSTERA. - Berriz, aldiz. En cambio.

JORRATU. - Landu. Cultivar.

LASTER. - Aurki. Dentro de poco.

JOSI. - Bete. Llenar.

BEREZKO. - Propio, natural.

HIRIBURU. - Capital.

BAITAN. - Barnean, barruan.

J.M.O.- Txikia. Datu puntualak, jendeak ez dakizkien gauzekin. Lau-bost **liburukote** egin litezke, baina jendeak ez ditu irakurtzen.

Bataioa eta Jaunartzea

HABE.- Adibidez?

J.M.O.- San Martzialak. Horrenbeste tar-tar-tar... Badakizu zenbat hil ziren? Bi. Eta, gainera, ziren espainolak nafarren aurka, ez frantsesen aurka. Frantsesak ziren nafarren laguntzaileak, baina baita ere alemaniarrek edo albaniarrek.

HABE.- Batzuetan ospatzen ditugu gertaera batzuk jakin gabe zer gertatu zen, ezta?

J.M.O.- Bai, jauna. Ni **esposatu** nintzenean, aprobetxatu nituen San Martzialak hemendik **ospa egiteko**. Askotan San Martzialetan hemendik kanpora joaten naiz. Ez naiz joaten Irunera egun horretan.

HABE.- Garai batean Nafarroa oso handia zen lurraldez, ezta?

J.M.O.- Euskal Herri guztia Nafarroaren mende zegoen. Begira liburu hau, ez dago ondo. 1.200 urtera arte jarri beharko luke, ez 1194a arte. Dena Nafarroaren menpean zen, Donostia, Durango, Baiona...

Jesukristok bi sakramentu besterik ez zituen sortu»

HABE.- Jendeak badaki zer den Protestantismoa, zer den Katolizismoa?

J.M.O.- Ez dakite zer den Katolizismoa ere. Protestantismo historikoak eta Eliza Katolikoa oso antzekoak dira. Protestantismoa atera da Eliza Katolikotik. Jesukristok bi sakramentu besterik ez zituen **sortu**: bataioa eta komunioa. Besteak Elizak eginak dira, ez Jesukristok eginak. Hori da **alderik** handiena eta bestea protestanteen mezan, nahiz meza



“Juan XXIIIak jarraitu izan balu, denak elkartuko ginatekeen”.

hitza ez erabili; eukaristian dena bukatzen da, ogi eta ardo guztia. Ez da gordetzen. Bestalde, **Itun Berriak** jartzen du Ama Birjinak izan zituela beste seme batzuk; izen eta guzti azaltzen dira. Hori libre uzten dute **sinestea** ala ez. Eta Aita Santua ez dute onartzen. Jaungoikoa da Aita Santu bakarra. Besteari ez diogu Aita Santu esaten, Erromako Eliza Katolikoko Lehendakaria baizik.

HABE.- Eta protestanteek badute Aita Santuaren ordezkio edo antzekorik?

J.M.O.- Bai. Bada Genevan. Nik esaten dut, beste «Vatikano

txiki» bat dela, uste dut lau urtez behin aldatzen dutela.

HABE.- Eta zer moduzko harremanak daude «Vatikano txikiaren» eta «Vatikano handiaren» artean?

J.M.O.- Oso onak. Nola egin da bestela Elizen Arteko Biblia euskaraz? Diferentziak ez dira bata bestearekin kontra egoteko adinakoak.

HABE.- Ezberdintasunak hain txikiak izanik, zergatik ez dira elkartzen?

J.M.O.- Nik hori nahi dut esan. Ni joaten naiz mezatara,

LIBURUKOTE.- Liburu+kote. Liburu handia. Era berean: mutikote, lodikote, zezenkote...

ESPOSATU.- Ezkondu.

OSPA EGIN.- Ihes egin, alde egin.

SORTU.- Crear, fundar.

ALDE.- Diferentzia, ezberdintasuna.

ITUN BERRIA.- Nuevo Testamento.
SINETSI.- Sinistu. Creer.

eta meza protestanteren ere bai, eta zer? Eta Jaunartu ere bai.

Idazteuna

HABE.- Zu teologoa ere bazara. Zer diozu erlijioen arteko harremanaz?

J.M.O.- Madrilén bada elkarte moduko bat, «Asociación de Teólogos Juan XXIII» eta kongresu bat egin dute, hamalagarrena, eta ni horiekin nago. Interviu aldizkariak aitatzen du kongresua, iraileko alean. Nik ez dut behin ere erosten aldizkari hori. Zuretzat fotokopiak.

HABE.- Erreportaia horren izenburua «Teólogos Españoles, contra el Papa» da. Horrenbeste apaiz eta al daude Aita Santuaren kontra?

J.M.O.- Ia denak. Hasteko, zertarako behar dugu «El Derecho Canónico»? Protestanteek ez dute horrelako libururik. Idazteunean, hor dago dena,

Jesukristok esan duena. Zertarako gauza gehiago?

HABE.- «El Derecho Canónico» zer da idazteunaren interpretazioa, partziala?

J.M.O.- Arrunt partziala, bere estilora. Gaizki dago hori. Apaizek ere ez dute maite.

HABE.- Juan XXIII zer zen, egungo Aita Santua baino hobea?

J.M.O.- Juan XXIIIak jarraitu izan balu, denak elkartuko ginatekeen. Baina honekin ez... Hura askoz ere hobea zen. Donostiako **Gotzaina** ere oso ona da, oso argia, non dabilen dakiena. Lagun zaharra dut. Egurra nahikoa ematen diote Madriletik hasita.

HABE.- Elkartzea aitatatu duzu. Baduzu itxaropenik elkarketa hori egingo dela?

J.M.O.- Itxaropena badut, baina ez honekin. Hurrengoarekin beharbada.

HABE.- Lehen esan duzu protestante gutxi daudela **gurean**, gero eta gutxiago?

J.M.O.- Bai. Katolizismoan bezala. «Pasan de todo»; hori gertatzen da.


HABE.- Eta hain modan dagoen gai hori, Fundamentalismoak eta? Ulertzen al dugu besteen erlijioa?

J.M.O.- Hemen katoliko-kristauak dira beren gurasoak ere hala zirelako. Eta, hemen **jaio beharrean** han jaio izan balira, beste erlijio batekoak izango ziren.

Jaungoikoa da Aita Santu bakarra»

HABE.- Zer iruditzen zaizu emakumeek meza ematea?

J.M.O.- Oso ondo. Bai horixe! Nik badut artikulu bat horri buruz



Ez zaio San Martzialelan Irunen egotea gustatzen.

IDAZTEUN.- Biblia, Sagrada Escritura.

ARRUNT.- Guztiz, erabat.

GOTZAIN.- Apezpikua. Obispo.

GUREAN.- Gure artean.

JAIO BEHARREAN.- Jaio ordez edo partez. En lugar de nacer.

oso handia: «Ensayo sobre la Teología de la Liberación Femenina». **Hitzaldi** bat eman nuen. Orain dela gutxi atera da egunkari batean Juan Pablo II.ak esan duena, Jesukristo izan zela emakumearen askatasunaren aitzindari; nik hori aspaldi esan nuen hitzaldi horretan.

HABE.- Esan duzu katolizismoak eta protestantismoak harreman onak dituztela. Baina Elizen Arteko Bibliaz gain zertan **gauzatzen** da harreman hori?

J.M.O.- Urtean afari bat egiten dugu, maiatzaren hasieran Beloken. Elkarrekin bazkaldu, meza ospatu, Jaunartu... Dena den, nik ez dut jada harremanik protestantismoarekin. Gainera, gaur egun zertarako protestantismoa? Eliza Katolikoarekin joan litezke denak. Protestantismo historikoa esan nahi dut, e? Erreformatuak. Besteak, baptistak eta, gu horientzat ez gara kristauak.

HABE.- Zein izan da zure egitekoa Elizen Arteko Biblia itzulpenean?

J.M.O.- Lehendabiziko argitalpenean, Itun Berrikoan, euskara zailagoa zuen. Orain erraztu egin dugu. Nere egitekoa esaten zena egia zen ala ez **egiaztatzea** izan da, hitzez hitz. Lan asko eman digu itzulpen honek, 12 urte. Nik ez diot estiloari begiratu. Protestanteen aldetik bi izan gara. Inaki Mendiguren eta ni. Ezagutzen duzu? Oso ondo menderatzen du Inaki Mendigurenek euskara batua. Nik ez, nire euskara etxekoa da. Eta lehendabiziko argitalpen hori atera zenean, azaldu zen idatzia ni protestanteen gotzaina nintzela, eta ni ez naiz sekula gotzain izan. Min asko egin zidan horrek.

HABE.- Leizarragak ere itzuli zuen Itun Berria Nafarroako erregeinak eskatuta.



J.M.O.- Nik ez dut sekula Leizarraga esaten, beti Lizarraga. Sinodotan Lizarraga azaltzen da. Gero berak jarri zuen frantsesez Liçarraga eta euskaraz Leizarraga. Zergatik egin zuen hori? Gainera haren baserriak Lizarraga izena zuen, eta ni egona naiz Beskoitzen eta denak Lizarraga dira, Leizarragarik ez da inor.

HABE.- Zuk Protestantismoa ikertu duzu. Ikerketa horrek eman al dizu Euskal Herriko historiaren beste **ikuspegi** bat?

J.M.O.- Protestantismoari esker ibili naiz bilaka eta bilaka eta asko ikasi dut Euskal Herriaz. Nik lehen ez nekien Nafarroako erregeen menpe zegoela Lapurdi eta hori dena. Eta ikasi dut Baionako **Elizbarrutiak** Lapurdi, Garazi (País de Cisa), Baigorriko Harana, Arberua, Baztan, Bidasoa Harana hartzen zituela, baita ere Gipuzkoaren zati bat, Donostia barne. Liburuan duzu mapa, larogeita hamahirugarren orrian.

Genevan bada «Vaticano txiki bat»

HABE.- Protestantismoa ikertzen duzun liburu horretan bada beste zerbait **oso bitxia**. Apaiz bat aitatzen duzu; apaiz horrek esaten duenez, San Fermin ez omen zen nafarra.

J.M.O.- Estanislao de Labayru da apaiz hori, historialaria. Berak esaten duenez, San Fermin ez zen nafar, ez Iruñeko gotzain izan.

JUAN MARIA DE OLAIZOLA IGUÑIZ

Juan Maria de Olaizola 1921ean jaio zen Irunen. Madrilen eta Donostian egin zituen ikasketak (enpresari-ikasketak, teologia, filosofia, psikologia, historia). Donostian artzain ordenatua, Masterra du Enpresa-Zuzendaritzan eta Lizentziatua da Teologian. Itun Berriari buruzko bere tesina hiru hizkuntzatan dago idatzia, euskaraz, gaztelera eta greziera. Greziera oso ondo daki: «Badakizu zergatik ez naizen Doktore? —esan digu. Doktore izateko Montpellier-era joan behar nuen. Eta ni hara ez noa. Ez dut horren beharrik».

Erlijioaz eta teologiaz asko idatzi du European, eta hitzaldiak eman ere bai. Dionisio Amundarainen ardurapean eginiko Eliz Arteko Biblian partaide izan da.

HITZALDI.- Charla, conferencia.
GAUZATU.- Zertu. Concretar, realizar.
EGIAZTATU.- Verificar, comprobar.

IKUSPEGI.- Ikuspuntua. Punto de vista.

ELIZBARRUTI.- Diócesis.
BITXI.- Arraroa, deigarria.

BILBOKO PLAZA BERRIA, TRUKEAREN AZKEN TOKIA

3 Igandez Bilboko Alderdi Zaharrera joan eta goiz osoa tabernan sartu gabe **ematea** ezinezkoa dela? Bai zera! Zoaz Plaza Berriko **arkupeetara** eta ikusi bertako merkatu txikia: txoriak, txakurrak, seilu eta **txanponak**, harriak, bigarren eskuko liburu eta aldizkari **lizunak**, **makilagileak**... denetik saltzen da hantxe, baita merke saldu ere. Erostera ez doanak ere badu lekurik. Igandero-igandero seiluak elkarri erakustera eta elkarrekin aldatzera joaten dira helduak, eta umeak dozenaka kromoak aldatzera/saltzera besapean oinetako-kutxak leporaino beteta dituztela. Kromozale guztiak ez dira umeak, ordea; gurasoak, amonak... umeak baino eroago dabilta. Ba omen da Alkizaren kromoaren truke 800 pezeta ordaindu duenik ere.

Goizeko hamarrak. Goizegi da. Jenderik ez da izango eta, beraz, dendariekin lasai hitz egitea izango dugu, **gure artean**. Korreo kaletik **barrena** Plaza Berrira iritsitakoan, ordea, jendearen hotsa entzun dugu. Jende heldua **goiztarra** da, gosalduta eta etxetik kanpora irteteko **irrikitan egoten** da. Begiratu, ikutu, galdetu... horrek badu bere **xarma**.

Bildumazaleak goizean goiz

Bildumazaleak dira batez ere goiztar. Igandero-igandero hementxe dira falta duten seiluaren bila, **aurreztutako** diru-apurrak **xahutzeko** prest. Algotatik etortzen da Javier katalogoa besapean duela. **Miatu** eta miatu ibiltzen da mahaiz mahai eta tarteka zerbait erosi ere bai. Ez digu esan nahi zenbat diru joaten zaion horretan. «Lau mila pezeta?», guk. «Gehiago», erantzun digu. Seilu-saltzaileak, oster, ez dela horretatik bizi esan digu, astegunetan beste lanbide bat duela. Asteroko gehigarria omen



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

EMAN.- Iragan, pasa.

ARKUPE.- Arku+pe. Arcada. Era berean: elizpe, aterpe, zubipe...

TXANPON.- Sosa. Moneda.

LIZUN.- Lascivo, pornográfico.

MAKILAGILE.- Makilak egiten dituen. Bastonero/a.

GURE ARTEAN.- Gure baitan. Para nuestros adentros.

BARRENA.- Zehar, gaindi. A través de.

GOIZTAR.- Tempranero/a.

IRRIKITAN EGON.- Desioz amorratzen egon, desiratzen egon.

XARMA.- Lilura. Encanto.

BILDUMAZALE.- Coleccionista.

AURREZTU.- Aurreratu. Ahorrar.

XAHUTU.- Gastar.

MIATU.- Arakatu. Escudriñar.

du hau. Bere zaletasunarekin igandero 10.000 pezeta irabaztea ez dago gaizki.

Beste mahai batean saldu/erosi iragarkia ikusi dugu: «Bai. Erosi ere egiten ditut, erabilitako seiluak, jakina. Partikularrek seilu interesgarriak eskaintzen dizkidate batzuetan. Lehenago aldatu ere egiten genituen, baina galtzen ari da ohitura hori. Inoiz trukatu ere egiten ditut. **Bezeroak** errepikatuak eman eta nik beste batzuk eskaini». Mahaiaren honunzkaldetan dago Jose Antonio, 24 urteko leioarra, semearekin batera miaketan: «Aitonak zaletu ninduen ume-umetan eta ia astebururo etortzen naiz hona. Orain semea zaletu nahi dut nik. Sei urte ditu. Gero neure bildumak utziko dizkiot». Seiluak ikusten jarraitu du Jose Antoniok, semeak aspertu-itxura badu ere. Handik ordu t'erdira edo plazaren bestaldean aurkitu dugu aita semearengatik galdezka: «Ikusi al duzue? Galdu egin zait». Seiluzaleatasunak itsututa, bazter batean utziko zuen semea eta galdu.

Pedro koinatuarekin batera etorri da txanponak erostera. Mila-mila eta bostehun pezeta inguru joaten zaio hilean zaletasun horretan. Behar dituen txanponen zerrenda dakar koaderno txoan. Holanda eta Estatu Batuetako bildumak egiten ari da orain. Holandako bi txanpon txiki aurkitu ditu, merke-merkeak: 50 pezeta bakoitzak. Pozik joan da etxera diru erosi berrieekin.

Trukean

Plazaren erdialdean bi taldetxo ari dira seiluak aldatzen. Luis da **eskarmenturik** handienekoa: «Hogeita hamar urte daramatzat hona etorten. Garai batean jendetza **itzela** etorten zen. Igandeetan 200 bat seilu igoi aldatzen nituen; orain, ostera, 30-40. Saltzaileei erosi? Ezta pentsatu ere! Oso garesti saltzen dute. Eta politagoa da aldatzea». Ondoko gizon-taldean emakume zahar bat ari da seiluak trukatzeko, bermiotarra bera, alarguna. «Etorren den emakume bakarra»,



Kromoak aldatzera joaten dira umeak eta helduak. Salerosketa ere badago, hala ere.

gizon batek. «Ea senargaia topatzen dudana, senargai **diruduna**, e!», esan digu andreak erdi-txantxetan erdi-egiatan.

Handik gertu ume-taldetxoak aurkitu ditugu. Hura **zurrunbiloa!** Aitor aurtengo futbol-txapelketan espezialduta dago. Besapean daraman oinetako-kaxan bostehundik gora kromo ditu, ondo **sailkatuak** denak: «Nik amaituta daukat bilduma eta orain saldu egiten ditut. Kromoak 5 pezetatan saltzen dira, baina fitxajeak 25-100 pezeta bitartean dabilta. Baina bada kromo bat, Alkizarena, 800 pezeta ordaindu duenik». Aitorrek 14 urte besterik ez ditu. Saltzaile-**sen**a, orde, oso landuta dauka. Irabazien zati bat beste bilduma batean sartzen omen du, eta bestea beretzat. Badira beste kromo-saltzaile batzuk ere. Pitxik eta Alexek igandero 3.000 pezeta irabazten dutela aitortu digute, eta Ivanek 2.000/3.000. Kromoena ez da jolas hutsa.

Saltzaileak baino gehiago kromo-trukean dabilzanak aurkitu ditugu, gurasoak beren seme-alabekin zenbakiak esan eta zenbakiak esan jo eta fuego, 10-12 urteko umeak taldean joandakoak... la berrogei urteko gizon bat ikusi dugu dotore samar

jantzita. «Zer, seme-alabentzako kromoak aldatzen?», guk. «Ez, ba. Neretzat dira —erantzun digu lehor-lehor—. Axola ez badizu, jarraitu egingo dut: 125-210-37...». Plazaren sarreran, kotxe baten gainean kromo-kaxa utzita aurkitu dugu amona bat kromo-trukean jo eta ke. Alabak esan digu **bilobarentzat** ari dela lanean, hari bilduma osatzen. Amona Miraballesek etortzen da kromoak aldatzera. Isidro ere futbol-txapelketako kromoak aldatzera etorria da. Ez dauka 12 urte, 52 baizik. Beretzat du bilduma, oso futbolzalea baita, «Athletizalea». Hogei bat kromo falta ditu bilduma osatzeko.

Bildumak alde batera utzita, denetik dago Plaza Berrian, konpak diskak **errentan hartu** eta, etxean grabatuta, 400 pezetatan saltzen diren zinta piratak, pertsiar-amerikar arrazako **katakumeak** 40.000 pezetatan, komiki zaharrak eta aldizkari pornoak erdi-prezioan, Ekuadorreko esku-lanak, pelikuletako iragarkiak, harri eta fosilak, **kirtenean** abereen irudia duten makilak, loritoak 2.500 pezetatan... Igande goizetan Bilboko Alderdi Zaharrean badago goiz osoa tabernan sartu gabe ematea, bai horixe!

BEZERO. - Cliente.
ESKARMENTU. - Esperientzia.
ITZEL. - Handia, ikaragarria.


DIRUDUN. - Diru+dun. Dirua duena, aberatsa. Era berean: bizardun, hartzekodun, zaldun...
ZURRUNBILO. - Zirimola. Remolino.
SAILKATU. - Clasificado.
SEN. - Instinto, sentido.

BILOBA. - Nieto/a.
ERRENTAN HARTU. - Alokatu. Tomar en alquiler.
KATAKUME. - Katu txikia. Gatito.
KIRTEN. - Giderra. Mango.

MENDIAN ERE KONTUZ

2 Mendizaleek ez dute beldurrik. Gero eta **tontor** zailagotara igotzen dira. Arriskuak ez dira beti ondo neurtzen, eta batzuetan istripuak izaten dituzte. Besaiden mendian hil diren euskal mendizaleak **omendu** dituzte irailean. Joan den **denboraldian** hamabi hil dira, 12...

Beste datu bat: Alpeetan, Frantziako alderdian, 93 lagun hil dira udan.



NAZIOARTEKO GIZA LAGUNTZARAKO IKASKETAK DEUSTUAN

2 Jende asko ari da nazioarteko giza laguntzako lanetan. Laguntzeko gogoia bai, baina beti ez da lanean asmatzen. Lan horiei **etekin** handiagoa ateratzeko jende **jantzia** behar da. Horretarako sortu dira Deustuko Unibertsitatean **graduondoko** ikasketa hauek. Hogeita hamar bat ikasle ari dira horretan Deustuan. Dena den, larogeik egin zuten eskaera. Hurrengo apirilera arte teoria ikasi eta gero, praktikak ere egingo dituzte.

GAZTEEK LANA ETA SOLDATA BANATU EGIN NAHI

2 Javier Elzok gazteei buruzko ikerketa soziologiko bat **zuzendu** du. Komunikabideek X **Belaunaldiaren** barruan sartu nahi dituzte gazteak. Baina gazteen artean — helduen eta zaharren artean bezala — talde asko dago eta pentsakera asko. Horixe frogatu du J. Elzoren ikerketak. Baina gai batzuetan **bat dato**z gazte gehienak. Adibidez, lana eta soldata guztien artean **banatu** nahi dituzte gazteek: %72a **iritzi** horretakoa da. Helduen artean horrelakorik!



HILDAKOEN ERRAUTSAK NAHASTUTA

2 Kanposantuetan arazo handiak dituzte. Hildako guztiak ezin kabit. **Lurperatu** eta urte batzuetara hezurak atera eta denak leku batean sartzen dituzte askotan. **Gorpuak** erretzen badira, ez dago horrelako arazorik, baina... Belgikako enpresa batean izan dituzte arazoak. Egunero 14-16 gorpu erre behar zituzten, baina 3 labe bakarrik **izaki**. Beraz, denbora luzean aritu behar lanean. Nola azkarrago bukatu? Gorpuak bata bestearen segidan errez. **Errautsak** nahastu egiten dira, jakina! Baina zein **konturatuko** da? **Zoritxarrez**, harrapatu egin dituzte. Jendea orain ez dago lasai: «Zeinenak ote dira etxeko errautsak?»

TONTOR.- Punta, gailurra.
OMENDU.- Homenajear.
DENBORALDI.- Temporada.
GIZA LAGUNTZA.- Ayuda humanitaria.
ETEKIN.- Probetxua, mozkina. Utilidad.
JANTZI.- Trebatua, gaitua.

Dotado, preparado.
GRADUONDO.- Posgraduado.
ZUZENDU.- Dirigir.
BELAUNALDI.- Generación.
BAT ETORRI.- Ados egon. Estar de acuerdo.
BANATU.- Partitu. Repartir.
IRITZI.- Aburua, ustea. Opinión.

LURPERATU.- Ehortzi, lur eman. Enterrar.
GORPU.- Hilotza. Cadáver.
IZAKI.- Dituzte. Tienen.
ERRAUTS.- Ceniza.
KONTURATU.- Ohartu, akordatu. Darse cuenta.
ZORITXARREZ.- Tamalez.


ROBERT LOUIS STEVENSON

2 R. L. Stevenson (1850-1894). Neguan, azaroan, jaio zen, eta neguan hil zen, abenduan, 43 urterekin. Beraz, haren heriotzaren ehungarren urteurrena ospatuko da aurten.

TOKIAK: R. L. Stevenson EDIMBURGON jaio zen. **ZENDU**, berriz, SAMOAN zendu zen, POLINESIAN. Hala esan zuen Samoako buruzagi batek **hilkutxaren** aurrean: «Samoa zurekin batera hil da, Tusitala». EDIMBURGO UNIBERTSITATEKO ikaskideekin hango **kaira** joango da sarri. Itsas-istorio asko entzungo ditu han. 23 urterekin hiru hilabete eman zituen HEBRIDASKO irletako batean. Bueltan familiak FRANTZIARA bidaliko du. FRANTZIAKO IPARREKO parajeak ezagutuko ditu, kanoaz zeharkatuko, eta OKZITANIA osorik pasatuko du **oinez**, «Modestine» astoarekin batera. PARISEN Fanny Vandergrift Ousborne amerikarra ezagutuko du. F. V. Ousborne USARA itzultzen denean, idazlea haren bila joango da. Maiteminduta dago Robert Louis. CALIFORNIAKO MONTERREY hirixora heldu zenean, gaiso zegoen Stevenson. Hiritxo horretara biltzen dira munduko urre-bilatzaile, abenturazale eta **bale** arrantzaile guztiak. Ezkonduta ESKOZIARA itzuliko da emaztearekin eta Fannyren semearekin. Han, BRAEMAR-EN hain zuzen, jolas polit bat asmatuko dute Stevenson eta Lloyd-ek, Fannyren semeak. Irla bat marrazten dute, eta **altxor** bat ezkutatzeko, gero mendiak marrazten dituzte, kaiak eta abar. Leku horietan gauza asko gertatzen dira. Horrela jaioko da Altxor Uhartea. Liburuak SUITZAKO **eritetxe** batean bukatuko du. 1887an Ameriketara doaz berriz Lloyd, Fanny, R. Louis eta Margaret Balfour, idazlearen ama. NEW YORK-ETIK NUKU HIVARA joango dira. Bertakoen defendatzaile **sutsu** bihurtuko da Stevenson, eta gizon zuriak egiten dituen **sarraskia** salatuko du. TAITIRAN gaisotu egingo da, berriz ere gaisotu. Ez dute dirurik beren itsasontzitzo, «Casco» konpontzeko, baina bertakoen laguntza izango dute. HAWAIN kanpotarrak lurak kentzen ari dira bertakoei, **azturak**

aldarazten... Hori ezagutuko du idazleak. MOLOKAIN leprak jotako gaixoak ezagutzen ditu. **Irlarik irla** ibili ondoren, SAMOARA iritsiko da. Eta berriz ere irlarik irla dabil. Baina SIDNEYN gaisotu egingo da berriz. SAMOARA bueltatzen da. Samoarrez erreztatzen dituzte bertakoen otoitzak, ingelesez ere bai beste batzuk. Samoarren alde egingo du ingeles eta alemanen kontra. Baina 1893ko gerra zibilean alemanen lagunek irabaziko dute, eta samoarren erregea **atzerri**a bidaltzen dute, LEVUCARA. Handik atera egin nahi du idazleak berriz ere erregetza **lor dezan**, baina orduantxe hilko da R. L. Stevenson.

GAIXO INDARTSUA. Bost urte zituen **geroztik ARNASBIDEETAKO** GAITZA zuen. Beraz, zortzi urte bete arte EZ ZUEN IKASI EZ IRAKURTZEN, EZ BERBA EGITEN. ZIATIKAK ETA OFTALMIAK ere **egin zitoten eraso**. Bidaia asko sendatzeko egin zituen. Adibidez, Hebridastik Frantziarako. **Nerabe-aroan** TUBERKULOSIAK harrapatu zuen. Fanny dibortziatu egin zen Stevensonekin ezkontzeko. Dibortzioa bideratzen ari zenean, **HILZORIAN** egon zen idazlea. BURUKO **ODOLJARIO** batek akabatu zuen.



Baina, era berean, indartsua zen, ausarta. Aitak **argi-dorre**ak egiten jarri nahi zuen semea, baina honek EZ ZUEN BIDE HORI JORRATU NAHI. Altxor Uhartea jolas batekin hasi zen. Jolas horretan parte hartuko du Stevensonen aitak. Beraz, badirudi ADISKIDETU egin zirela azkenean aita-semeak. Samoatarren alde idatziko du Times egunkarira. Eta BIDAIATU ere ikaragarri egin zuen.

MARIA GARIKANO. Ez da atera zaharra ALT XOR UHARTEA, euskarara itzulua eta ikasleentzako moldatua. Inaki Mendigurenek egin du lan hori, eta Xabier Olarra ere ari da Durangoko Azokarako EL SENOR DE BALLANTRAE itzultzen. Maria Garikanok ere itzuli du Stevensonen lanik. Alde batetik, ALT XOR UHARTEA, eta, bestetik, BOTILAKO DEABRUA. Baina, beharbada, Txertoa argitaletxean bada itzulpen bat, eskoziararren lanik ezagunena DR. JEKILL ETA MR. HYDEREN KASU HARRIGARRIA da. **SAIAKERA** BATEN ITZULPENA ere aterako omen da Luxia bilduman. Dena den, haxe salatzen du M. Garikanok: «Oso gutxi ezagutzen dugu Stvenson. LITERATURARI BURUZ OSO ENTSAIO INTERESGARRIAK ditu, BIDAI LIBURU POLITAK, HAURRENTZAKO POEMAK... Baina etiketa bat jarri zaio bere literaturari: «gaztetxoentzako literatura». Eta etiketa horrek kalte egin dio.

LITERATURAREN EZAUGARRIAK. M. Garikanori galdetu diogu zein diren Stevensonen literatur ezaugarriak:

- Pertsonaien psikologia ondo lantzen du.
- Abenturazko nobeletan ohi ez bezelako pertsonaiak sortzeko trebezia.
- Estilista oso ona. Elementu gutxirekin giroa adierazten trebea.
- **Ardatz** moralik ez.
- Munduan bada **oreka**, baina hori itxura besterik ez da. Horren azpian kaosa dago.

ZENDU.- Hil. Morir.
HILKUTXA.- Zerraldoa. Féretro.
KAI.- Nasa. Muelle.
OINEZ.- A pie.
BALEA.- Ballena.
ALT XOR.- Gordailua. Tesoro.
ERITETXE.- Ospitalea.
SUTSU.- Gartsua. Ferviente, ardiente.
SARRASKI.- Triskantza, hondamendia. Destrucción.

AZTURA.- Ohitura. Costumbre.
IRLARIK IRLA.- De isla en isla.
ATZERRI.- Erbestea. Destierro.
LOR DEZAN.- Lortzeko. Para obtener.
ZITUENEZ GEROZTIK.- Desde que tenía.
ARNASBIDE.- Vía respiratoria.
ERASO EGIN.- Erasan, ekin. Atacar.

NERABE-ARO.- Adolescentaroa. Adolescencia.
HILZORIAN EGON.- Hiltze edo hiltzeko puntuan egon.
ODOLJARIO.- Hemorragia.
ARGI-DORRE.- Faro.
SAIAKERA.- Ensayo.
ARDATZ.- Eje.
OREKA.- Equilibrio.

HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

Helbide honetara bidali behar da:

HABE aldizkaria
Vitoria-Gasteiz kalea, 3
20008 DONOSTIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Herria:

HABE Aldizkaria jaso nahi dut etxean.

Honela ordainduko dut: Kontu korronte bidez (Urtean hamaika ale: 2.800 pezeta).

Hauxe da: Bankua edo Aurrezki-Kutxa

Sukurtsala:

Zenbakia:

BAI, ESAN

NOLAKO JOERA,
HALAKO METODOA

2 Phosphore aldizkaritik hartu dugu test hau, geure hizkuntzara **egokitze**ko ikutu batzuk eginda. Hizkuntzak ikasteko metodo egokia aukeratzen laguntzen du. Metodo aproposa aukeratzen baduzu, errazago ikasiko duzu euskara. Jolasa da hau, ez hitzez hitz hartu.

	BAI	EZ
1. Erne egoten naiz euskaldunzaharrak hizketan ari direnean	☐	☐
2. Oso gustura joaten naiz hizkuntz laborategira	☐	☐
3. Gramatika ondo menperatzen dut	☐	☐
4. Nere hutsegiteek amorru bizian jartzen naute	☐	☐
5. Bost axola zerbait gaizki esaten badut	☐	☐
6. Ahoskera hobea dut irakurketan hizketan ari naizenean baino	☐	☐
7. Buruz ikasten ditut gauzak	☐	☐
8. Poliki-poliki irakurtzen dut, dena ondo ulertzeko	☐	☐
9. Eskoletan hizkuntz jolasak ditut oso gustukoak	☐	☐
10. Arauak nik neuk aurkitzea gustatzen zait	☐	☐

ONDORIOAK

JOERA KOMUNIKATIBOA (Baiezkoa: 1 eta 5)

Huts egin arren jendearekin hitz egiten saiatzen zara, **elkar ulertzen**. Hizkuntza ondo ikasteko arazoak izango dituzu agian. Agiriak ez dituzu hain erraz lortuko.

JOERA ESPERIMENTALA (Baiezkoa: 2 eta 9)

Ikasgelan **rol-jokoak**, antzerkia, abestiak, ordenagailuarekin egindako ariketak eta dituzu gustukoak. Askatasunaren zale zara; hizkuntzak dituen arau estuak ere ikasi beharko dituzu, ordea.

JOERA AKADEMIKOA (Baiezkoa: 3, 6 eta 10)

Dena ondo egituratua nahi duzu, testuliburua ikasgaiz ikasgai ikastea. Ikasle onaren fama duzu, baina ez zara hain erraz hasiko hizketan, hutsegiteko beldurrez zaude eta.

JOERA ANALITIKOA (Baiezkoa: 4, 7 eta 8)

Xehetasunak, hiztegia, egiturak, aditza... zuzentasunak axola dizu gehienbat. Irakasle askori horrelako ikasleak gustatzen zaizkio. Dena den, ikasle horiek ez dira **etorri** handikoak izaten.

NOLAKO JOERA, HALAKO METODOA.- A tal tendencia, tal método.

EGOKITU.- Moldatu. Adaptar.**AMORRU.**- Haserrea. Rabia.**BOST AXOLA.**- Axola edo ardura gutxi. Poco importa.**AHOSKERA.**- Hitz-ebakera. Pronunciación.**BURUZ IKASI.**- Aprender de memoria.**ARAU.**- Erregela. Norma.**HUTS EGIN ARREN.**- Nahiz eta huts egin. A pesar de fallar.**ELKAR ULERTU.**- Batak bestea konprenitu. Comprenderse.**ROL-JOKO.**- Juego de rol.**XEHETASUN.**- Zehaztasuna. Detalle.**ETORRI.**- Hitzjariora. Facundia, fluidez de palabra.

DENDETAN EUSKARAZ

2 Herri euskaldunetan etxean euskaraz, kalean euskaraz... baina dendan edo aurrezki kutxan sartzen denean jende askok erdaraz egiten du. «Badakizu, diru-kontuetan badaezpada ere erdaraz», **leloa** oso ezaguna dugu. Joera honen aurka borrokatzeko sortu da «Euskara Merkatal Mundura» **egitasmoa** Gipuzkoako eta Nafarroako zenbait herri euskaldunetan: Billabona, Ibarra, Ordizia, Orio, Tolosa, Zizurkil, Doneztebe, Sunbila eta Nafarroako Malerreka eskualdeko gainerako beste herrietan.

Ez da haxe **esparru** hau euskalduntzeko aurreneko saioa. Aurretik Hernani, Ondarru, Donostia, Burlata eta Gernikan besteak beste izan da antzeko egitasmorik. Toki horietako irakaspenak gogoan hartuta **tajutu** du SIADECOK oraingo plangintza zabal hau. Aipatutako herriez gain, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko 21 herriek ere **bat egingo** dute plangintza honen bigarren fasean. Lehenengoa bukatua dute UEMAko herriek.

Hiru **helburu** nagusi ditu egitasmoak: establezimendu komertzialetan —denda, akademia eta aurrezki-kutxa eta banketxeetan— euskararen **erabilera** handitu, bai ahazkoan bai idatzizkoan, enplegatuen euskara-maila hobetu, eta harremanak euskaraz **garatuko** dituen denda-**sarea** sortu.

Hiru fasetan banatu da lana. Irailaren 19tik urriaren 8ra establezimendu komertzial guztietara joango dira herri horietako euskara-zerbitzuek bidalitako langileak. Honako hauek dira egingo dituzten lanak: egitasmoa aurkeztu, dendaren euskararen erabilpenari buruzko datuak bildu, **itzuli** beharreko idazkiak jaso —errotuloak zein bestelako paperak— eta herri horiek jendea euskalduntzeko/ alfabetatzeko dituzten laguntzen **berri** eman.



Bigarren bisitaldian, urriaren 24tik azaroaren 11ra, euskararen erabilpena **areagotzeko** eta hobetzeko proposamen zehatzak egingo zaizkie dendariei eta. Eskaintzarik egingo zaie jakina! Langile euskaldunek hogeit bat ordutako ikastaroak egitea izango dute merkataritzako euskararen **trebatzeko**. Bestalde, bigarren fase honetan dendariak euskararen erabileran hartuko dituzten konpromezuak **hitzarmen** batean bilduko dira. Udaletxearekin, finantz etxeekin eta beste dendariekin harremanak euskaraz bideratuko dituzten ere zehaztuko da hortxe. Euskarazko harreman-sarea sortuko da horrela.

Euskara-zerbitzuek hitzarmenak aztertu ondoren, hurrengo urteko urtarilean hasiko dira eskaintzak bideratzen: itzulpen-zerbitzu **iraunkorra**, ikastaroak...

Egitasmo iraunkorra da hau; ez **bolada** baterako kanpaina. Hitzarmena **sinatzen** dutenek urtero jasoko dute euskara-zerbitzuko langileen bisita. Horrela ziurtatuko da egitasmoaren helburuak betetzen ari direla.

LELO. - Estribillo.
EGITASMO. - Programa.
ESPARRU. - Alorra, saila. Area, ámbito.
TAJUTU. - Antolatu, eratu.
BAT EGIN. - Batu. Unificar.
HELBURU. - Xedea, jomuga. Objetivo.
ERABILERA. - Utilización.
GARATU. - Desarrollar.

SARE. - Red.
ITZULI. - Traducir.
BERRI. - Informazioa.

AREAGOTU. - Gehiagotu. Aumentar.
TREBATU. - Gaitu. Capacitar.
HITZARMEN. - Akordioa. Contrato.
IRAUNKOR. - Permanente.
BOLADA. - Denboraldia. Temporada.
SINATU. - Izenpetu. Firmar.

Irrati-formula sisteman informazioa sartzen hasi da Euskadi Gaztea

EDURNE ORMAZABAL: «Lanpostuen tarteak bereziki inportanteak da»

3 Edurne Ormazabal Euskadi Gazteko koordinatzailea da Euskadi Irratian. **Eraberriturik** dator Euskadi Gaztea apirilaz geroztik. **Iragarki-kanpaina** handia burutu dute irratia-aren inguruan, eta Euskadi Gazteko iragarkia saritu egin du publizitate-etxe batek. **Aldaketak** egin dituzte, **HABE** aldizkarian kolaboratuko dute eta abar. Aro berri honi buruz hitz egitera joan gara Euskadi Irratiako **egoitzara** argibide bila.

HABE. - Hiru zatitan banatuta daukazue programazioa. Zein hiru zati?


EDURNE ORMAZABAL. - Goizeko zazpietatik hamarretara Hasiordu pop, Marijo Oriak egiten du. Ondoren, gaueko hamarrak arte, Irrati-formularen sistema erabiltzen dugu, eta gauean saio espezialdua. Gaueko hamabietatik goizeko zazpiak arte Euskadi Irratiarekin bat egiten da. Lehendabiziko zatian bestelako kantak ere jartzen ditugu, astero-astero erabakitzen dugun kanta-zerrendaz aparte, duela 10-20-30 urteko kantak. Eguraldia, **errepideen** egoera... Orain bereziki agenda zabal xamarra eman nahi dugu: kirola, gizarte edo kultur alorreko gertakari nagusienak, ez bakarrik hemengoak. Beti ere kontuan izanda **entzule** gaztea dugula. Beraz, labur-labur, aipamenak izango dira.

H. - Irrati-formulan aldaketak egin dituzue.

E.O. - Bai. Handia. 1993a arte den-dena musikak betetzen zuen. Orain orduoro informazio-tarte bat ematen dugu. Ordu

bakoitzak badu horrelako gai **jakin** bat. Orokorrean aipatzeko, berri bitxiekin hasten gara 10,15etan, eta bereziki interesantea lanpostuen tarteak da, bi aldiz egunean, beti ere gazteei zuzenduta, kontuan harturik gure entzulegoa 30 urte artekoa dela gutxi gorabehera. Informazio-tartean gazteek parte hartzeko moduko ekintzen berri

ematen dugu: zuk zer egin dezakezu hor parte hartzeko, horra joateko, zer eskaintzen zaizu...? Jendea parte hartzera bultzatu. Musika-albisteak ematen ditugu, beka eta **lehiaketak** ere bai... Informazio praktikoa. Guretzat **jauzi** handia izan da hori. Ez dago estatuan horrelako esperimentu askorik irratia-aren **alorrean**.



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

ERABERRITU. - Renovar.
IRAGARKI-KANPAINA. - Campaña publicitaria.

ALDAKETA. - Alda(tu)+keta. Cambio. Era berean: garbiketa, itaunketa, azterketa...

EGOITZA. - Sede.

ERREPIDE. - Kaminoa. Carretera.

ENTZULE. - Entzu(n)+le. Oyente. Era berean: erosle, ikusle, idazle...

JAKIN. - Concreto, determinado.

LEHIAKETA. - Concurso.

JAUI. - Salto.

ALOR. - Esparrua, saila. Sector.

H.- Informazio praktikoa esan duzu. Irratiaren egoitza Donostian dago. Horrek **baldintzaten** al du informazio hori?

E.O.- Pertsona bat dugu Bilbon, eta Gasteizen ez. Bai. Piskat baldintzatzan du, baina saiatzen gara baldintza hori **ahalik eta txikiena** izan dadin.

H.- Eta gauean musika espezialdua.

E.O.- Orain arte **emanaldi** bakarra izan dugu, bi ordukoa, eta hemendik aurrera bi saio izango dira: Gurutzebidea eta Gauaren Beroan. Lehendabiziko orduan, beharbada, musika «alternatiboagoa» entzuten da. Orokorrean, beste musika-korronte batzuk aztertzen dira.

Euskadi Gaztea euskara hutsez

H.- Gaztelarazko Euskadi Gaztearik ez dago jada. Horrek entzule gutxiago esan nahi al du?

E.O.- Epe laburrera entzulegoak behera egingo du piskat beharbada. Aldaketa egin ondoren egin zen entzulego-azterketa bat eta ez zen beheraka nabarmenik izan. Udazkenean beste ikerketa batzuk egingo dira.

H.- Zein **alde** dago zuen irrati-formularen eta beste irrati bateko irrati-formularen artean?

E.O.- Alderdi batetik, musika-aukera eta, bestetik, **edasleak**. Euskadi Gaztea Irrati Publikoa da eta, orokorki hartuz, beste irrati pribatuak izan dezaketen presio komertzial hori ez du, kanta aukeratzeko irizpideak zabalagoak izan daitezke nolabait. Aukera zabala egiten saiatzen gara, eta kalitatearen bila beti, jende askoren gustua betetzen saiatzen gara.

H.- Kanta-zerrenda nola osatzen duzue, nondik iristen dira zerrenda horiek?

E.O.- Guri astero-astero Euskal Herriko eta kanpoko



Ale honetan hasi, eta hilero orri bat beteko dute Euskadi Gazteak eta Euskadi Irratiak HABE aldizkarian.

diskoetxeetatik iristen zaigu materiala. Material hori guztia hartu eta bilera bat egiten da **aurkezle** guztiekin, **ni barne**. Bozketa-antzeko bat egiten dugu, eta horren arabera erabakitzen dugu zer aieratu.

H.- Hor nola txertatzen duzue euskal musika?

E.O.- «Diskriminazio positiboa» erabiltzen dugu. **Ekoizpena** askoz ere txikiagoa da, hori argi dago. Nahiz eta azken **boladan** Hegoamerikako erritmoak indarrean dauden, anglosajoiak dira jaun eta jabe, eta horrekin konparatuz, euskal ekoizpena oso txikia da. Horrek ez du esan nahi euskarazko edozein gauza sar litekeenik Euskadi Gaztean.

H.- Lehen esatariak aitatu dituzu.

E.O.- Nik uste lortu dugula hasieran zaila **zirudiena**. EEBBetan milaka irrati-formula desberdin daude, oso musika-aukera desberdina dute batzuek eta besteek, oso espezialdua gehienbat... Hemen, aldiz, eta estatuan, irrati-formularen estiloa bakarra izan da... Gu estilo horretatik ateratzen saiatu gara, euskarak berak ere, ez dut esango «mugak», baina badu **eragina** aurkezpen-estiloan ere...

H.- Nolako eragina?

E.O.- Ez dakit. Zaila gertatzen zait imajinatzea «40 Principales»en estilo hori bera euskaraz. Ez dakit. Dinamismo baten barruan, **irribarrerako** irratia nahi dugu

algararako baino areago, nolabait esatearren. Eta estiloaren aldetik ez daitezela guztiak **ezpal** berekoak izan. Hemen hori ez da beharrezkoa.

Esatarien sinesgarritasuna

H.- Ez al zaizu iruditzen irrati-formulan ahotsa behartu bezala egiten dutela esatariak. Horietakoren bat ezagutzea egokituz gero, berehala esaten duzu: «komunikabideko aurkezlea eta nik ezagutzen dudan pertsona ez dira bera».

E.O.- Hori da **saihestu** nahi duguna Euskadi Gaztean. Esatariak sinesgarria izan behar du.

H.- Eta hain garrantzizkoa al da esatariak ere gazteak izatea?

E.O.- Bada. Gazteen kezka eta gazteen mundua gertuago dituztelako. Beharbada, 40 urteko bati gehiago kostako zaio imajinatzea zertan ariko den 18 urteko bat arratsaldeko lauretan. 22-23 badituzu errezago ulertuko duzu gaztea.

H.- HABE aldizkarian izango duzuen parte hartzea ere aitatu beharko dugu.

E.O.- Bai. Noski. Marijo Oriak eta Joseina Etxeberriak hilero orrialde bat idatziko dute. Alde batetik, pop-rocka hartuz, bi disko gomendatuko dira, eta, bestetik, klasikoa eta folka. Klasikoa egiteko, Pello Zabalaren laguntza izango dute.

BALDINTZATU.- Condicionar.
AHALIK ETA TXIKIENA.- La menor posible.
EMANALDI.- Saioa. Emisión.
ALDE.- Diferencia.

EDASLE.- Esataria. Locutor/a.
AURKEZLE.- Aurkez(tu)+le. Presentador/a.
NI BARNE.- Yo incluido/a.
EKOIZPEN.- Ekoiz(tu)+pen. Producción. -PEN atzizkiak ekintza eta horren ondorioa adierazten ditu. Adibidez: laburpen, luzapen, egiaztapen...

BOLADA.- Denboraldia. Temporada.
ZIRUDIENA.- Que parecía.
ERAGIN.- Influencia.
IRRIBARRE.- Barremurria. Sonrisa.
ALGARA.- Carcajada.
EZPAL.- Astilla, estilo.
SAIHESTU.- Itzuri. Evitar.

PATATAK ERRONKARIKO GAZTAREKIN

2 Osagaiak: kilo bat patata (txiki samarrak), 125 gramo Erronkariko gazta (edo antzekoa), goilarakada bat gurin, bi **goilarakada** oliba-olio, biperrauts beltza eta borrai hosto bat.

Patatak hogeituz egosi, **zuritu** eta hozten utzi. Zentimetro-erdiko patata-zerrak ebaki, eta **koipeztutako azpil** batean zabaldu. Gazta **xehetua** eta biperrautsa gainetik bota eta gurin-puskak ere gainean ipini. Gero, labera. Ordu-laurdenez egon behar du 200 gradutan. Mahaira atera aurretik, borraia xehetua —**gordinik**— erantsi.



GAZIEGIA/ GOZOEigia/ KOIPETSUEGIA

2 Zopa edo **eltzekoa** gazia badago, erantsi patata-zati batzuk eta berriz egosi piska batean. Patatek kenduko diote gatza. Patatak, jakina, ez dira jateko.

Jatekoa gozoegi badago, berriz, piska bat **gazitu**.

Eta koipe gehiegi badauka, **hozkailuan** sartu. Gainea koipea gogortu egingo da. Erraz kenduko diozu horrela.

ARGAZKIAREN NEGATIBOA NON OTE?

2 Argazkirik **kuttunenak** gordeta daukazu. Baina negatiboak non dira? Galduta, baietz? Hemendik aurrera, argazki eder horiei negatiboa atzetik **itsatsi**. Kopia behar dituzunean, eskura daukazu.



BARATZURIA UDAZKENEAN INDARBERRITZEKO

2 Udazkenean gorputza **gaitzei** gogor egiteko **ahul** samarra egoten da batzuetan. Baratzuria ez da erremedio txarra indarberritzeko. Hasi egunean baratzuri-ale batekin hasiko gara. Bigarren edo hirugarren astetik aurrera, berriz, bi edo hiru ale jan. Baratzuria gustukoa ez baduzu, badira horretarako pilulak, kapsulak eta. Baratzuritik aterata daude.

GOILARAKADA.- Cucharada.
ZURITU.- Azala kendu. Pelar.
KOIKEPTATU.- Koipea eman.
Engrasar.
AZPIL.- Bandeja.
XEHETU.- Txikitua. Rallado.
GORDINIK.- Crudo.
ELTZEKO.- Potaje.

GAZITU.- Salar. Kontrakoa: gezatu.
HOZKAILU.- Frigorífico.
NON OTE.- Non ote da? ¿Dónde estará?
KUTTUN.- Preziatua, estimatua.
ITSATSI.- Pegatxi. Pegar.
BARATZURI.- Berakatza. Ajo.
GAITZ.- Gaixotasuna.

Enfermedad.
AHUL.- Makala, indarrrik gabekoa.
Débil.

MINBIZIA: MAMUA OTZANDU NAHIAN

3 Donostiako Onkologikoan bada kartel bat zenbait **aholkurekin**. Horiei segituta, European %15ean gutxitu nahi dute **minbizia**: 1. Ez egon denbora askoan eguzkitan. 2. Ez **erre**. 3. Ez edan alkohol gehiegi. 4. Sarri jan fruta eta **barazki** freskoak, eta fibradun **lekariak**. 5. Ez egon lodiegi, eta jaki koipetsu **lar** ez jan. 6. **Orien** batek itxura aldatzen badu, **koskorren** bat ateratzen bada edo **odoljario** ez-ohikoren bat balego, joan medikutara. 7. Ohiko bihurtu **maginako** frotisa. 8. Bularrei sarri erreparatu, batez ere 50 urtetik aurrera. 9. Osasun-arazo iraunkor xamarrek badituzu, **hesteen** ohitura-aldatzeak, **zurrungak**, arrazoigabeko pisu-galtzea, joan medikutara.

Munduan lautik bat edo eror omen liteke minbiziaren **atzaparretan**. Izan ere, dietak eta minbiziak lotura estuak izaten dituzte sarri. Madrilen ez da izan zaharra Elio Riboli, European Minbizia eta Dietaren lkerketaren koordinatzailea, eta hark esan duenez, **urdailean, hestegorrian, heste lodian**, ahoan, azaltzen diren tumoreak dietaren ondorio omen dira maiz. Eta hala berean gibelesko, bularretako, biriketako, **bixikako**, obarioetako, **areko**, laringeko, endometrioko edo **aurre-gurintxoko** tumoreak ere.

Beraz, zer jan behar da minbiziak ez harrapatzeko, edo eragin txikiagoa izan dezan? Aditu gehienak bat datoz: fruta eta barazki freskoak primerakoak dira zenbait minbizi-klase ez **nozitzeko**. Ehundaka sustantzia ongarri daude, baina oraindik ez dakite nola funtzionatzen duten. Bestalde, fruta eta barazkien bitaminak botika moduan, kapsulatan eta, hartzea ez da prebentzio-bide. Hori da E. Riboliren ustea: «Nabari da bitaminak botika moduan hartuta, biriketan, heste lodian, bularretan eta urdailean minbizia azaltzeko arriskua ez dela gutxitzen». Lekari fibradunak ere

gomendagarriak dira: «Fibra ona da heste lodian minbizia ez azaltzeko, baina horrek ez du esan nahi fibra asko jaten duen batek horrelako minbizirik izango ez duenik». Izan ere, elikadura ez da minbiziaren sortzaile bakarra. Tabakoa ere oso kaltegarria da,

erretzaileen artean ugari dira biriketako, eztarriko eta ahoko minbizia dutenak: «Biriketako minbizia duten ehun lagunetik larogeita hamarretik gora erretzaileak dira» dio Arantxa Etxeberria medikuak. Mendebaldean **elikadura**



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

Emakumeak sarri joaten baitira ginekologoarengana, nahiko garaiz egin liteke bularretako minbiziaren diagnostia.

MAMU.- Fantasma.
OTZANDU.- Emetu, baretu.
Amansar.
AHOLKU.- Gomendioa. Consejo.
MINBIZI.- Cáncer.
ERRE.- Fumar.
BARAZKI.- Ortuaria. Verdura.
LEKARI.- Legumbre.
LAR.- Gehiegi, larregi.
Demasiado.

ORIN.- Lunar.
KOSKOR.- Handitua. Hinchazón.
ODOLJARIO.- Odol-galtzea.
Hemorragia.
MAGINA.- Vagina.
HESTE.- Intestino.
ZURRUNGA.- Ronquido.
ATZAPAR.- Atzamarra. Zarpa.
URDAIL.- Estómago.
HESTEGORRI.- Esófago.

HESTELODI.- Colon.
BIXIKA.- Maskuria. Vejiga.
ARE.- Pankrea.
AURRE-GURINTXO.- Próstata.
NOZITU.- Pairatu, jasan. Sufrir.
ELIKADURA.- Alimentación.

desegokiak adina minbizi dakar tabakoak. Eta **erretzaileen** artean bakarrik ez, erretzaileez inguratuta bizi diren ez-erretzaileek ere jasaten dute gaitz hori haien **erruz**; dena den, ez daude denak azken iritzi honekin ados. «Eta asko erretzen duenak asko edaten badu, alkohola jakina, badirudi horrek kalte handia egiten duela, batez ere lepotik sudurrerako bitarte horretan. Eta biriketan eragina duela ere garbi dago» argitu dute Donostiako Onkologikoko Arrate Apaolaza eta Arantxa Etxeberria medikuek.


Ikerketa eta teknologia

Mediku hauen esanetan, hemen edo EEBBetan teknologi aldetik nahiko **paretsu** dabilta: «Ikerketan aurrean dabilta haiek, baina ikerketen ondorioak guztion onerako dira, ez hangoentzako bakarrik» esan digu A. Etxeberriak. Teknologiarenean alorrean, minbizia sendatzeko moduan eman dira

aurrepausurik nabarmenenak, diagnosian gutfiago. Kimioterapia erabiltzen da batzuetan minbizia sendatzeko. Kimioterapiak **minbizidun** zelulekin batera, ondo dauden zenbait ere akabatzen ditu. Bestalde, kimioterapiaren ondorioz, zikina edo toxizitatea odolaren zeluletan azaltzen da gehienbat, **eta hezurmuean** ere badu eragina. Beraz, ezin erabili kimioterapia nahi hainbat. Baina gaur egun arazo hori, toxizitatea, **gainditzeko** moduan daude teknika nahikoa berri bati esker, eta, jakina, kimioterapia dosi handiagotan erabiltzeko moduan. Hori da bi osagile hauen ustetan, orain dela gutxi izandako **berrikuntzarik** garrantzikoena.

Ikerketan bada ahaztu ezin den arazo bat. Munduko Osasun Erakundeak emandako datuen arabera, munduko biztanleriaren %80ak —Hirugarren Mundukoa gehiena— **sendabelarretatik**

ateratako gaiak erabiltzen ditu osatzeko. Mendebaldean ere, botikatan saltzen den osagaien laurdena kimikaz aldatutako landarekia da, beste laurdenak sendabelarretan du oinarria. Eta, jakina, landare horiek Tropikoan daude gehienbat. Kimika-farmazia alorrean dabilen Merck estatubatuar enpresatzarrik **hitzarmen** bat **sinatu** zuen 1991n Nueva York-eko Lorategi Botanikoarekin eta Costa Ricako INBIO Institutuarekin. Milioi bat dolar gehi irabazien portzentaia baten truke, bi eskubide lortu ditu Merc-ek: farmaziagintzarako gaiak Costa Ricako **oihan** tropikalean bilatzeko, eta berak bakarrik, eskubidea, eta INBIOk alor horretan lortutakoa ezagutzekoa. Besteak beste, minbizia sendatzeko botikak lortu nahi dituzte. Antzeko helburua du Rhone-Poulenc enpresak ere, **HIESari** eta minbiziari gogor erasotzeko Txinako zenbait landare ikertuz; eta lan-hitzarmenak sinatu ditu Shanghai eta Pekingo unibertsitateekin.



Besteak beste, barazkien agente fotokimikoetan dute itxaropena jarria zientzilariek.

Istiluak ere sortu dira ekolojisten eta farmaziagintzan dabilzanen artean. *Taxus brevifolia* landaretik Taxol izeneko botika ateratzen dute. Badirudi oso ona dela obarioetako tumorearen aurka, sendatzeko adina ez ordea. Baina martxa honetan landarea betirako galduko omen dela, diote ekolojistik. 1992an Brasilgo Rion izandako **Ingurugiro** eta **Garapenaren** Konferentzian horixe eskatu zuten, Hirugarren Munduko **altxor** genetiko **musutruk** ez **xahutzeko**. Hori **saihesteko** modu bat izan liteke Merck-en eta INBIOren arteko akordioa. Baina EEBBek eta EEEko herrialde gehienek ez dituzte akordio horiek aintzat hartzen. Dena den, enpresa batzuk ari dira, Indena esaterako, landareei kalterik egin gabe sendagaiak aurkitzen.

Gaixoen beldurra

Minbizia gaitz beldurgarria da askorentzat. Heriotzarekin lotzen dugu askotan: «Beldurra oso handia da, askotan gaixoak ez

ERRETZAILE. - Erre+tzaille. Fumador/a. Era berean: sortzaile, laguntzaile, hiltzaile...
ERRU. - Kulpa.
PARETSU. - Pare+tsu. Ia pare. Era berean: berdintsu, honelatsu, berdintsu...
MINBIZIDUN. - Minbizi+dun.

Minbizia duena. Era berean: txapeldun, dirudun, bizidun...
HEZURMUIN. - Médula.
GAINDITU. - Goitu. Superar.
BERRIKUNTZA. - Berri(tu)+kuntza. Renovación.
SENDABELAR. - Hierba medicinal.
HITZARMEN. - Akordioa. Contrato.
SINATU. - Izenpetu. Firmar.
OIHAN. - Basoa. Bosque, selva.

HIES. - SIDA.
ISTILU. - Tirabira, eztabaida, arazoa.
INGURUGIRO - Medio ambiente.
GARAPEN. - Desarrollo.
ALT XOR. - Gordailua. Tesoro.
MUSUTRUK. - Doan. Gratis.
XAHUTU. - Gastar, dilapidar.
SAIHESTU. - Itzuri. Evitar.

dira ausartzen galdetzerare, susmatzen dutelako zerbait. Hala ere, gero eta gehiagotan galdetzen dute. Ze gaitz duten azaltzen diegu, ze bitarteko ditugun gaitza sendatzeko, eta ze aukera duen bizirik ateratzeko prozesu guztia bizi ondoren» esan digu E. Etxeberriak. Izan ere, ez da gauza bera, esate batera, **barrabiletako** minbizia edo biriketako. Nolabait esatearren, sendatzen zailenak biriketako eta giltzurrintako minbiziak dira, eta azaleko minbizi-klase bat ere, melanoma izenekoa ez da erraz menperatzen. Baina beti ere kontuan hartuz, zenbat eta lehenago jakin minbiziaren berri, orduan eta errazagoa izango dela sendatzea: «Adibidez areko minbizia ere zaila da sendatzen. Diagnosia area nahikoa gaitzotuta dagoenean egiten da. Barrabiletako minbizi-klase batekin, ordea, garai batean urte bete edo biren buruan hil egiten ziren; egun, asko sendatu egiten dira. Linfomak ere senda litezke batzuetan; garai batean ez. Eta bularreko minbizia... emakumeak sarri joaten baitira ginekologoarengana, nahikoa **garaiz** egin liteke diagnosia...» azaldu digu A. Plazaolak. Eta edadeak ba al du zerikusirik? galdetu diegu. A. Plazaolaren ustez, edadeak eta gaisoaren jarrerak baino **areago** tumorea nolakoa den, horrek omen du eragin gehien. Baina gaixoak gaitzaren aurrean jarrera **baikorra** azaltzen badu, edo borrokarako gogoak, horrek lagundu egingo omen dio seguruenik. Izan ere, askotan tratamendua oso gogorra da, eta sendatzeko gogoa duenak, lur jota ez dagoenak, hobeto onartuko ei ditu tratamendu horiek.

Dena den, badirudi azken ikerketen arabera, estresak eta depresioak hondatu egiten dutela gorputzaren babes-sistema, eta, beraz, estresa eta depresioa ez izateak lagundu egiten duela gaitza lehenago sendatzen edo bizirik gehiago irauten bederen. Kaliforniako Unibertsitatean melanoma zuten 74 gaixo bi taldetan banatu zituzten. Talde bati ohiko



Biriketako minbizia duten asko erretzaileak dira.

tratamendua **atxiki** zioten, eta beste taldeak bilerak izan zituen laguntza-talde batekin. Bilera horietan minbiziak jotakoek dituzten arazoez hitz egin zuten, eta arazo horiek gainditzen irakasten zieten. Bost urteren buruan bigarren taldeko 3 **eri** hil ziren, eta lehendabizikokoak 12.

Stanford-eko Unibertsitateko David Spiegel psikiatra, berriaz, mesfidatia zen erabat. Burua ondo edukitzeak ez du bularretako minbiziaz **hiltzorian dagoena** sendatuko. Hori frogatu nahi zuen Yalom psikiatraren ikerketa batean oinarrituta. Yalom-ek bularreko minbizia zuten ia 100 emakume zituen aztergai. Spiegel-ek berea frogatu zuen; bai. Baina ohiko tratamenduaz gain, tratamendu psikiatrikoa izan zuten emakumeek denbora gehiago iraun zuten bizirik. **Nolanahi ere**, Spiegel-ek ez zekien tratamendu psikologiko horren barruan zein zen elementurik baliagarriena.

Informazioa nola eman

Informazioa ugaritzen ari da minbiziari buruz, baina «boom»

moduan ematen diren **berriak** kaltegarriak omen dira sarri: «Orain dela gutxi atera den berria. Bularretako minbizia salatzen duen gen detektatzailea. Eta gaixo guztiak, eta gaixo ez daudenak ere, zoratuta, bularretako minbizi guztiak salatzen dituelakoan. Beste bat: «EEBBetan bularretako minbizia sendatzen duen droga irten da». Hori ezin da horrela esan... Gaixoak guri droga horren eske etortzen zaizkigu, bestela hara joango direla» bota digu E. Etxeberriak.

Ikerketa asko egiten ari da barazkiekin

Kontuak kontu, ikerketek ez dute etenik. Zientzilariek, besteak beste, barazkien agente fitokimikoetan dute itxaropena jarria. Ehundaka daude tomate-zerra bakar batean, edota piña-puska batean, edo baratxurian, edo azenarioan... EEBBetako Minbiziaren Institutu Nazionala milioika dolar ari da erabiltzen minbiziaren kontrako agente horiek zehatz zein diren jakiteko.

BARRABIIL.- Koskabiloa, potroa. Testiculo.

GARAIZ.- A tiempo.

AREAGO.- Gehiago.

BAIKOR.- Bai+kor. Optimista.

Aurkakoa: ezkor.

BEDEREN.- Behintzat, behinik behin.

ATXIKI.- Jarri, ipini.

ERI.- Gaixoa. Enfermo/a.

HILTZORIAN EGON.- Hiltzeaz edo hiltzeko puntuan egon.

NOLANAHI ERE.- Edonola ere. De todas formas.

BERRI.- Albistea, informazioa. noticia.



EZINDUENTZAKO ALDIZKARIA ALEMANIAN

1 Aldizkariaren izena Handicap da: **hiruhilabetekaria**, 20.000 ale **aldiko**. Hirurogeita hamar orrialde ditu. Alemanian 6 milioi ezindu daude gutxi asko. **Beraz**, **arrakasta ziur** izango du aldizkariak. Ezinduak **ekintza** asko egiteko **gauza dira**, eta horren **berri eman** nahi dute Handicap-ekoek.

GASTEIZEN TRIKITIXA

1 Trikitixa jotzeko metodoa kalean dago. Irailean atera zen. Gasteizko Trikitixa Eskolak plazaratu du. Metodo honek ez du trikitixa-irakaslea **ordezkatz**en; ez da hori **helburua**. Gaur egun 100 irakasle daude gutxi gorabehera. Trikitixa eskolak ere **ugaritzen** ari dira.



NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN EUSKARA MUTURRA SARTZEN

1 **Berri** ona da hori. Haur Hezkuntzako Diplomatura euskaraz ikasteko **aukera** dago, diplomatura osoa. Beste lizentziatura batzuetan ere badira euskarazko **ikasgaiak**. **Hala nola**, **Hizkuntzalaritzan**, Nekazal Ingenieritzan eta Soziologian.

GERRATEEK OSASUN-EGOERA LARRIAGOTZEN

2 Munduko Osasun Erakundeak 6.500 milioi pezeta —260 milioi libera— onartu ditu Europan erabiltzeko 1994-95 urteetan. Zortzi gerrate **latz** ari dira une honetan Europan. Esate baterako, Jugoslavia zenean, Georgian eta Tayikistan-en. Gerrate hauek ez dute bat ere laguntzen **difteria**, **kolera**, **tuberkulosia** eta haurren zenbait **gaitz baretzen**. Gaitz horiek dira, MOEren ustez, azken boladan Europan gora egin dutenak.



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

EZINDU.- Inválido/a.
HIRUHLABETEKARI.- Trimestral.
ALDIKO.- Cada vez.
BERAZ.- Por lo tanto.
ARRAKASTA.- Éxito.
ZIUR.- Seguro. Ciertamente.
EKINTZA.- Acción.
GAUZA IZAN.- Gai edo kapaz izan.
BERRI EMAN.- Informar.

ORDEZKATU.- Sustituir.
HELBURU.- Asmoa, xedea. Objetivo.
UGARITU.- Multiplicar.
BERRI.- Albiste. Noticia.
AUKERA.- Era, modua. Oportunidad.
IKASGAI.- Lección.
HALA NOLA.- Adibidez. Por ejemplo.

HIZKUNTZALARITZA.- Lingüística.
LARRIAGOTU.- Agravar.
LATZ.- Lakarra, gogorra. Aspero, duro.
GAITZ.- Gaisotasuna. Enfermedad.
BARETU.- Lasaitu. Calmar.



2 VIVALDI

Lau urtarook. Kontzertua Do Mayorrean, RV171. Sokentzako kontzertua «Conca» RV163. L'Europa Galante, Fabio Biondi **bakarlari** eta zuzendari. Opus III. 2.800 pta.


Ezagunak baino ezagunagoak dira Vivaldiren Lau Urtarook. Dena den, Fabio Biondiren L'Europa Galantek beste maila batean aurkezten dizkigu. Garaiko musika-tresnekin **jotzeaz gain**, partituraren **sakoneko esanahiarekin** bat egiten du. Ganbarako talde aparta baten aurrean gaude. Osotasunean baino instrumento bakoitzaren doinua somatzen dugu une bakoitzean. Grabazioa **garden**a da, ederra benetan. Musikaren kritika gutxitan iritsi da honelako **adostasunera**.

2 MADREDEUS

«O Espírito da Paz». 2.800 pta.

1987. urtean Lisboako Madre de Deus auzoko eliza zaharrean elkartu ziren beren lehen diskoa grabatzeko. Aurten euren laugarren lana ezagutu dugu: «O Espírito da Paz». Musika klasikoan oinarriturik, beste zenbait iturritatik ere edan dute: Portugaleko fadoa, jazz edo new age-tik. Dena erabiltzen dute eta, azkenean, Madredeusena beste inorena ez den musika berezia sortzen da. Gitarraren erritmoetan oinarriturik, teklatuak, txeloa eta **eskusoinua** sartzen dira piskanaka. Baina benetako indarra Teresa Salgueiren ahotsak dauka. Goxoa, dotorea, **lasaia**, barruraino iristen den doinua. Bere **magalean** bakearen izpiritu darama.

MARIJO ORIA



Gomendioak

R.E.M.

«Monster» - Pop-Rock
EL INQUILINO COMUNISTA

«Bluff» - Pop-Rock

ERIC CLAPTON

«From the Cradle» - Blues

ZENBAIT

«Forrest Gump, the Soundtrack» - Pop-Rock

JOHN MELLENCANP

«Dance Naked» - Rock

2 PETER GABRIEL

«Secret World Live» 3.500 pta.

Hamaika teoria bada **zuzenean** grabatutako diskoen inguruan; artistak diskoetxearekin dituen zorrak ordaintzeko egiten direla, **aro** artistiko baten amaiera-hasiera ekartzen dutela... honek ez luke bukaerarik izango, ezta? Entzuleentzat, ordea, **bestelakoa** izaten da kontua, beti eskertzen dira zuzeneko diskoak. Kantu ezagunez beteta egoten baitira, eta askotan kantuek beste indar bat ere izaten dutelako. Hau Peter Gabriel-ek bakarlari modura egin duen bigarren zuzeneko lana da. Lan **bikoitza**. Eta **sortzaile** honen azken urteetako arrakastarik gehienak biltzen dituena. **Berritzailetik** ez du ezer, baina nahikoa **itxurosoa** da. Lasai zaudenean, lasai entzuteko modukoa.

2 BLUR

«Parklife» 2.700 pta.

Erresuma Batuan urteko sorpresarik sonatuenetako bat izan da Oasis taldearekin batera. Pop musikaren geroa omen da, hala esan du musikan **aditu** askok, gehienak britainiarrak, hori ere bai. Arnasa hartzea gero eta gehiago kostatzen zaion musika-estilo honen itxaropen berria. Blur taldea laukote bat da, eta aurten egin du bere hirugarren diskoa, «Parklife» izenekoa. Egia esanda, diskoa **urregorri hutsa da**. Hori bai, aurriritzi eta bestelako mugak **gainditzen** dituen jendearentzat bakarrik. Pop-Rock estilo zabal horretako adar gehienetan zintzilikatzen baitituzte beren kantuak, dantzarako ritmo gogorretatik hasi eta rock garratzetarartekoak. Dena den, guztiak daude primeran **dastatzeko** moduan.

JOSEINA ETXEBERRIA

EZAGUNA BAINO EZAGUNAGOA.-

Oso ezaguna. Muy conocido.

JOTZEAZ GAIN.- Además de tocar.

SAKONEKO ESANAHI.- Significado profundo.

GARDEN.- Transparente.

ADOSTASUN.- Akordioa. Consenso, acuerdo.

ESKUSOINU.- Acordeón.

LASAI.- Barea. Tranquilo.

MAGAL.- Altxoa. Regazo.

ZUZENEAN.- En directo.

ARO.- Garaia. Epoca.

BESTELAKO.- Desberdina. Diferente.

BAKARLARI.- Solista.

BIKOITZ.- Doble.

SORTZAILE.- Creador.

BERRITZAILE.- Renovador.

ITXUROSO.- Decoroso, digno.

ADITU.- Jakituna. Entendido, experto.

URREGORRI HUTSA DA.- Es oro puro.

GAINDITU.- Goitu. Superar.

DASTATU.- Gozatu. Degustar.



HIRU KONTAKIZUN

Mark Twain
Elkar, 78 orr., 680 pta.

3 Noiz edo noiz aitatu dut erdarazko esaldi hura: «Lo breve si bueno, dos veces bueno». Eta liburu hau irakurri ostean berriro esan behar. Adan, Eba, Kain eta Abel dira protagonistak istoriotan. Lehen gurasoak Jainkoak Paradisutik bota aurretik eta ostean ezagutuko ditugu hasierako bi istorioetan. Umorea erabiliko du Mark Twain handiak **barra-barra**, ironia, Mundiala da, esate baterako, 38. orrialdea, eta baita beste batzuk ere. Adanen eta Ebaren arteko harremanak badu bere grazia, **baduenez!** Eta Adanek Ebaren deskripzioa egiten duenean, eta alderantziz, batzuetan pentsatu dut gauzak ez direla, mendeak mende, horrenbeste aldatu. Eta aldatu ez dena, hirugarren istorioan legez, zera da, Kain gaizto askok duten arrakasta. Baina hiru istorioek nahiko bukaera «arrosa» baitute, daraman bideak galduko du George Benton, alias Kain, modernoa ere. Hirugarren istorio hau, dena den, **mikatzagoa** da, garratzagoa. Ez du jolasgurarik Mark Twain-ek.



TENE LEHIAKETA 1994

Elkar-Debako Udala. 92 orr., 820 pta.

3 Ez da lehiaketa honetako lehendabiziko saritua aurten. Baina bi sari jaso ditu, hirugarren

saria eta 18 urtez beherakoei ematen zaiena. Ander Izagirreraren Haragikeriak moduko ipuin beltz askorik ez dago euskal literaturan, oso pertsonaia gutxi baitaude giza **haragijaleak**. Bigarren sarituaren ipuina irakurri ostean, Patxi Zubizarretaren izena ikusteak ere bat baino gehiago harrituko zuen. Sexutik jo du oraingoan, giza harremanetik nahi bada. Bestelako giza harremana azaltzen da Pello Esnañen Larru-ikara ipuinean. **Gorreria** duen aita baten kezka, bere semeak arazo bera nozituko ote duen edo. Horrekin dabil bueltaka. Liburuko azkenaurreko ipuinean gerra-giro **goria** dabil bueltaka haur baten buruan. Eta azken ipuinean, Ainhoa Aranguren idatzia, nahikoa adierazten du izenburuak berak: Maitatu nahi eta ezin. Edo, hobeto esanda, barkatu nahi eta ezin. Parisen dago **kokatua** istorio gazi-geza.



NATURA ETA ABENTURA BIDAIA ZIENTIFIKOETAN

(Livigstone eta Humboldt-en esplorazioak)
Sarda taldea.
Gaiak, 208 orr., 1350 pta.

3 HABE aldizkariko ale honetan beste bidaiari nekaezin bat ere agertuko da: Stevenson idazle handia. Stevensonek, besteak beste, Polinesiako irla asko ezagutu zituen. Liburu honetan, berriz, beste bi bidaiari **amorraturen** joan-etorriek **liluratuko** dute irakurlea. Baina Livingstonek eta Humboldt-ek —Euskal herrian ere izan zen— alderdi zientifikoari erreparatuko diote. Hala diote Sarda taldekoek kontrazalean: «Liburu honen mamia da naturaren aurkikuntzaren lilurak ekarri duen ezagutza zientifikoa aztertzea». Bide batez, Hego-Afrika eta Hego-Amerika zoragarri eta latzekin egingo duzu topo liburuan.



ZOZO ZURIARENA

Alfred de Musset
Erein, 81 orr., 650 pta.

2 Alfred de Musset autore erromantikoa da, XIX. mendekoa. Oso narratzaile trebea. Oso ezagunak dira bere ipuinak. Eta horietako bat da Zozo Zuriarena.

Ipuin bezala irakurtzen bada, istorio **xarmagarri** batekin egingo duzue topo, eta zozo zuri bidaiariarekin. Baina ironiatik ere badu, eta animalia **gogaikarri** batzuk ere azaltzen dira. Izan ere, animalia gogaikarri horien bidez, Mussetek bere **garaiko gizartea** kritikatzan du, eta orduko zenbait idazle.

Azkenik esan **itzulpena** beste idazle handi batek egin duela: Juan Kruz Igerabidek.



SEXU-INFORMAZIORAKO NIRE LEHEN IPUINA

Jose Luis Garcia
Elkar-G.I.E, 40 orr. 600 pta.

2 Liburu honekin batera beste bi atera dira, biak Lehen Hezkuntzarako: Sexu-informazioarako nire lehen liburua eta Sexu-informazioarako nire lan-koaderno. Liburu hauek euskaraz, erdaraz eta galegoz **eman dira argitara**, eta **aurki** katalanez. Testu-liburu modura erabil litezke liburuok, baina aitatzan ari garen hau ipuin-modura erabiltzeko ere egokia da.

Idazlea psikologo klinikoa da, sexologian **aditua** eta nazioartean **ospea** duena. Jose Luis Garciak datorren hamarkadarako **sexu-heziketarako** programa bat osatu du. Programa horren zati dira liburuok.

Jon Zabalegi

BARRA-BARRA.- Gogotik, oparo. Profusamente.
BADUENEZ! - ¡Ya lo creo que tienes!
MIKATZ.- Garratza, mingotsa. Aurkakoa: gozoa, ezta.
HARAGIJALE.- Haragi+jale. Haragia jaten duena.
GORRERIA.- Gorraizea. Sordera.
GORI.- Incandescence.
KOKATU.- Lekutua. Ubicado.

AMORRATU.- Porrokatua, oso zalea.
LIRURATU.- Txunditu.
XARMAGARRI.- Liluragarria, zoragarria. Encantador.
GOGAIKARRI.- Mutiria. Fastidioso.
GARAI.- Sasola, denbora.
GIZARTE.- Sociedad.
ITZULPEN.- Itzul(i)+pen. Traducción. Era berean:

oroitzapen, luzapen, etsipen...
ARGITARA EMAN.- Kaleratu, argitaratu. Editar.
AURKI.- Laster. Dentro de poco.
ADITU.- Jakituna. Experto/a.
OSPE.- Sona, fama.
SEXU-HEZIKETA.- Educación sexual.

JULIA CHAVARRI: «IJITOEI ERE BEREN KULTURA ONARTU BEHAR ZAIE»

3 Ceniceron jaio zen, La Riojan, sei **neba**-arrebetan gazteena. Gurasoak nekazariak, baina ez herri **xehekoak**: «**Ardangileak**. Aitak ardoa erosten zuen eta gero **ontziratu**. Ardo-garraioan ere bazebilen, eta kasinoa ere bazuen, Ceniceroko kasinoa. Garai hartan, gerra ostean, Logroñon **barnetegian** ikastea ez zen txantxetakoa. Dirua behar zen. Nik Agustindarren eskolan ikasi nuen eta han 300 pezeta ordaintzen genuen bertan bizitzeagatik, maisu baten hileko soldata. Horri **erantsi** eskolak, liburuak... ezin zen edozein ikastera joan. Kanpoan ikasten zuen emakume bakarretakoa nintzen Ceniceron.»

Gerra-garaia ez dauka oso gogoan. Hutsune handi bat dauka **gogorapen** horiek estaltzeko edo. Francotarrek ia familia guztia hil zuten errepublikaren aldekoak zirelako. Osabak eta izeba hil zituzten eta beste batzuk preso hartu: «Fede handikoak ginen etxekoak, batez ere amona. Baina **harrez gero**, entzun dudanez, elizara **joateari utzi** egin zioten. Fede oso **sustraitua** zeukaten, hala ere, eta eskola katolikoetara bidali gintuzten».

Ikasle ona **izaki**, ikasten jarraituko du, baita azkar bukatu ere. Batxilerra eta magisterio batera ikasi zituen. Maistra-ikasketak eta oposizioak 18-19 urtetarako **gaindituak** ditu. Espainiako maistrarik gazteena da 1945ko oposizioen ondoren. Irakasle hasten da, arkitektura-ikasketak gogokoak baditu ere: «Besteri laguntzeko kezka badaukat ordurako, misioetara edo joatekoa. Baina beste edozein neska bezala, **senargaia** daukat eta ohiko bizimodua egiten jarraitzen dut. Medikuntza ikasten hasi —ez gustukoa nuelako, besteri laguntzeko biderik aproposena iruditzen

zitzaidalako—, baina utzi egin behar. Praktiketara odola ikusten nuen bakoitzean, **zorabiatu** egiten nintzen. Tarte horretan moja-talde bat ezagutu nuen, Del Divino Maestrokoak, ordena sortuberria eta oso aurreratua. Ni konturatzen nintzen nik ikasteko

aukera izan nuela, baina nire herriko lagunek ez zutela horretarako modurik izan. Eta moja haien egitekoa horixe zen: **behartsuekin** eta neska langile gazteekin lan egitea. Ceniceron, nire herrian, maistra-lanpostua lortu arren eta senargaiarekin ia



«Paulino, ijitoen patriarkarekin, dantzan, 1980an».

NEBA.- Emakumezkoaren anaia.
XEHE.- Umila, apala. Sencillo.
ARDANGILE.- Vinatero.
ONTZIRATU.- Ontzi+ra+tu. Ontzira sartu. Envasar. Era berean: etxeratu, kaleratu, herriratu...
BARNETEGI.- Internado.
ERANTSI.- Gehitu. Añadir.
GOGORAPEN.- Oroitzapena, gomuta. Recuerdo.

HARREZ GERO.- Geroztik. A partir de entonces.
JOATEARI UTZI.- Dejar de ir. Era berean: erretzeari, edateari, jateari utzi.
SUSTRAITU.- Errotua. Enraizado.
IZAKI.- Baitzen. Pues era.
GAINDITU.- Goitua. Superado, aprobado.
SENARGAI.- Senar+gai. Novio. Era

berean: apaizgai, hautagai, alkategai...
ZORABIATU.- Txoratu. Marearse.
BEHARTSU.- Txiroa, pobrea.



«Neure gurasoekin, 16 bat urte nituela»

konpromezua hartuta egon arren, goizetik gauera dena utzi eta Orensera joan nintzen nobiziadua egitera. **Ahoa bete hortzekin utzi** nituen senargaia eta aita. Aitak **ezusteko** handia izan zuen, ama hila zen ordurako eta nigan itxaropen handia zeukan jarria, hain ikasle **bizkorra**... Haserre, ia urte betean ez zidan idatzi».

Julia Madriler a doa nobiziaduko bigarren urtea egitera, eta bertan Arte Ederrak ikasten hasiko da. Berehala **nabarmenduko** da mojen artean ere. Salamankako superiora izendatuko dute, eta hantxe emakume langabeentzat Lanbide Hezkuntza Trinkoko



«Logroñon, aitarekin zezenak ikustera nindoala».

ikastaroak eratuko ditu. Horretan **aitzindari** izan ziren, ordura arte emakumezkoek ez baitzuten arlo horretan hasteko eskubiderik: «Ministroari eskutitz bat idatzi behar izan nion». Arrakasta handia izan zuenez, hezkuntza-mota horren Espainiako sarearen zuzendari izendatu zuten eta Gasteizera bidali: «**Gizarte Laguntzarako** ikasketak egiten hasi nintzen Gasteizen, bi urtez aurreko lana utzita. **Eta hara** lehenbiziko praktiketan **non** ezagutzen dudun Gasteizko ijitoen bizimodua. Txaboletan bizi ziren Lakua aldean eta Jauregien auzoan. Hura ez zen bizitzea! Umeak erretzen zitzaizkien, garai hartan 18 gradu zero azpititik ere egin zituelako, ura izozten zitzairen... Negargarria zen 1967an oraindik hala bizitzea. Beste mojej esan nien horiek zirela behartsuenak, langileen seme-alabak baino behartsuagoak, eta, beraz, haien alde egin behar zela lan. Baimena eskatuta, beste bi mojekin batera hasi nintzen lan horretan».

Bi urtetan, garaiko alkatearen laguntzaz, lortuko dute lehengo txabolak utzi eta 60 familia Gao Lacho Drom —Bide Zuzeneko Herria— izeneko ijito-herria **eraikitzea**. Gaur egun **herriska** hori onartzerik ez litzateke egongo, familiako 36 metro karratu edo zituztelako. Baina haien zat aurrera egitea zen. Bertan biziko dira Julia eta beste bi mojak ere. Eskolarik gabe hasi ziren eta hori eraikitzea ere lortu

zuten **adreiluz** adreilu kanpainaren bitartez dirua bilduta. Eta helduentzako tailerrak ere sortu zituzten, gehienak, %90a, analfabetoak baitziren. Urte bete ijitoekin batera zeramatenean, moja-ordenak itzultzeko eskatu zien. Juliak, ondo pentsatu ondoren, ijitoen aldeko aukera egiten du, moja izateari utzita. Hala ere, hogeit urte geroago ere ijitoek Hermana Julia esaten diotela aitortzen du **irribarre**a ezpainetan.

«Ez zen hasiera erraza izan, jakina! Pasadizo asko dauzkatz gogoan. Bi talde zirenez, alde batekoak ezkerretan bizi ziren, eta besteak eskuinean. Eta bien artean ez zen batere harreman onik. Txakurrak ere batetik bestera joaten ez zirela ausartzen esan dut nik askotan. Gero, gizarteak **baztertu** egiten zituen betidanik. Hemen izan genuen alkate batek, Casanovak, epaile izandakoak,



«Torremontalvon, hango erromeriara joan ginen batean».

zera esaten zuen harro-harro: Niri ijitoak etortzen zaizkidanean, zer egin duten jakin baino lehen, espetxera bidaltzen ditut sei hilabeteko, ohitzeko. Izan ere, orduan bazen lege bat, «de vagos y maleantes» ijitoekin erabiltzen zutena. Gizarteak baztertuta zeudenez, aurrera egin nahi bazuten, hamaika «ijitokeria» —zentzu onean esanda— asmatu behar. Gerraostean ume bat jaiotzen zela, **hamaika herri**tan ematen

AHOA BETE HORTZEKIN UTZI.- Dejar con un palmo de narices.
EZUSTE.- Ustegabea. Sorpresa.
BIZKOR.- Bizia, ernea, argia. Listo/a.
NABARMENDU.- Destacar.

AITZINDARI.- Pionero/a.
GIZARTE LAGUNTZA.- Asistencia Social.
ETA HARA...NON.- Y he aquí que.
ERAIKI.- Construir.
HERRISKA.- Herri+ska. Herri txikia. Era berean: bideska, mendiska, ontziska...

ADREILU.- Ladrillo.
IRRIBARRE.- Barremurria. Sonrisa.
BAZTERTU.- Zokoratu, alde batera utzi. Marginar.
HAMAICA HERRI.- Zenbait herri, herri asko.



«Moja nintzenekoa. Eskuinekoa naiz ni».

zuten umearen izena arrazionamendu-kartila asko izateko. Horrela, herri bakoitzean izen ezberdina jartzen zieten. Gero, ijitoei agiriak behar bezala txukuntzen hasi ginenean, hura **nahaste-borrastea!** Urteak behar izan genituen.»

Julia zaharrekin ikasi zituen ijitoen ohitura eta **arauak**, baita onartu ere: «Guregandik eskubidea dute. Ezin ditugu kolonizatu. Ezin dira gure **gizarte**-ereduan integratu, berdindu. Herrien kulturak onartu behar direla esaten badugu, ijitoei ere aitortu beharko zaie berena. Hori bai, gizartearen oinarritzko arauak bereganatu behar zituzten haiek ere, **liskarrik** ez izateko.»

1980-81ean erortzeaz dago Gao Lacho Drom; etxebizitza berriak behar dira. Sansomendi



«Gao Lacho Drom herriska. Hor ere Paulino».

NAHASTE-BORRASTE.-

Nahasmendua. Follón, desorden.

ARAU.- Norma.

GIZARTE.- Sociedad.

LISKAR.- Borroka, sesioa, sestra.

Disputa.

SUSTAPEN.-

Susta(tu)+pen. Promoción. -PEN atzizkiak ekintza eta horren ondorioa adierazten ditu. Esate baterako: luzapen, laburpen, ekoizpen...

PASADIZO.- Gertaera bitxia.

Anécdota.

ordainduko ote zenituen eta? Ez, ezta?»

Jende asko kontra zuten eta **zurrumurruak** zabaldu ziren berehala, honako hau adibidez: «Dei bat jaso nuen, **igogailuan** asto bat igo zutela salatuz, eta nik zera erantzun: zu bai astoa! Astoa igogailuan kabitzen dela sinista ere! Leihoak eta ateark erretzen zituztela zabaldu zen, edota txerriak etxean hazten zituztela. Baina horrelako zurrumurruak herri guztietan zabaldu dira».

Eta jendeak uste baino hobeto irten dira gauzak. Julia Chavarri oso **harro dago** lortutako emaitzekin, eta harrotzekoa da, egia esan, beste inongo ijitoek ez baitute lortu Gasteizko ijitoek lortu dutena. Hogeita zazpi urtetan hezkuntzan egindako lanak izan du fruiturik. Droga-kontuetan ere ijitoak berak hasi ziren



«Ijitoen ezkonaurreko erritoan sartzen utzi zidaten. Emaztegaia ez dela inorekin oheratu frogatzen da hor».

droga-trafikoaren kontra, eta ijito drogazaleak desintoxikatzeke egitasmo bat sortu zuten Arabako Mellede herrian. Hiru urte geroago Julia Chavarrik Eusko Jaurlaritzako Sustatu saria jaso du lan horregatik. Ez da sari bakarra izan, hala ere. Lehenago giza eskubideen Jesus Galindez saria jaso zuen.

Alabaina, gauza guztiak ez omen daude bideratuta. Gaur egun ere ijitoek arazoak dituzte etxeak **errentan hartzeko**, lanpostua aurkitzeko... Berak aldatu dira. Gizarteak, ordea, ez die irtenbiderik eskaini. Arrazismoa ez da desagertu: «Obra batean lan egiteko langileen zerrendan Gimenez guztiak **ezabatuta** ikusi ditut nik, ijitoak zirelako.» Julia Chavarrik badu oraindik zereginik.

ZURRUMURRU.- Esamesa, marmarra. Rumor.

IGOGAILU.- Igo+gailu. Igotzeko tresna. Ascensor. Era berean: garbigailu, hozkailu, zulagailu...

HARRO EGON.- Pozik egon. Estar contento/a.

ERRENTAN HARTU.- Alokatu. Alquilar.

EZABATU.- Anular.

Cecilia Gomezek sortu zuen orain hiru urte **ADAP, GARTZELATUEI LAGUNTZEKO ELKARTEA**

3 Gasteizko kafetegi batean gaude. Zazpi lagun, Asociación de Ayuda al Preso, ADAP-eko egoitzaetik etorruta. Antonio beste txiste bat ari da kontatzen: Emakume batek ordu bete darama leihotik begira, eta gizonak galdetu dio: «Zertan zaude hor, horrenbeste denboran leiho-izkinan?— Hor behean gizonezko bat eskuak mugitzen ari da barruko aldera eta kanpoko aldera, etengabe. Joan eta galdetu egingo diot zertan ari den. Nola galdetuko diozu ba? —gizonak. Galdetu egingo diot. Badoa gizonarengana eta galdetzen dio: «Zer egiten ari zara eskuak mugitu eta mugitu? Usoei jana ematen. Hemen ez dago usorik eta —emakumeak harrituta—. Ba, bota ere ez diet asko botatzen». Denak barrez hasi gara. Baita Maria ere.

Senar-emazteak dira Maria eta Antonio. Mariaren bidez ezagutu zuen ADAP Antoniok, eta, esan digutenez, **ez dute damurik, inondik ere**: «Jendeak uste du presoak **hutsaren hurrengoa** dela, eta ADAPek lan **esker**ga egin du gure alde. ADAP **hondoratu**zen bada, gu ere hondoratu egingo gara» adierazi digu Antoniok. Maria orain dela gutxi atera da gartzetatik, behin-betirako. Antonio oso txistezalea da, eta Mariak Antonioren txiste asko ezagutzen ditu, baina, hala ere, gustora entzuten ditu behin eta berriz. Diz-diz egiten diote begiek Mariari Antonio hizketan ari denean. Antonio ere aurki aterako da Langraizeko gartzetatik. Ateratzen den egunean gorbata jantzi nahi du, horrela egin nahi dio **diosala** askatasunari, ADAPekoek oparitutako gorbatarekin. Dotore egon nahi du, aldean du gorbata. Baina zazpi lagun egon, eta inork jakin ez korapilorik



«Berriz ibiltzen irakasten digute» esan zigun Antoniok.

ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

ELKARTE.- Asociación.

DAMU IZAN.- Damutu. Arrepentirise.

INONDIK ERE.- Inola ere. De ninguna manera.

HUTSAREN HURRENGOA IZAN.- Ezer gutxi balio.

ESKERGA.- Gaitza, handia. Enorme.

HONDORATU.- Hondora joan. Ir a pique.

DIOSALA.- Agurra, ongietorria.

EGUN.- Gaur egun. Hoy día.

ADORE EMAN.- Indar eman. Animar, dar ánimo.

MOTEL.- Geldoa. Aurkakoa: azkarra, arina.

egiten!: «Aurkituko dugu norbait dakiena» dio irribarretsu.

Cecilia Gomez

Aurkitu, Cecilia Gomez aurkitu zuten Langraizeko giltzapetuek orain hiru urte. Berak sortu zuen ADAP. **Egun** hogeita hamar lagun dira, gazteak gehienbat: abokatuak, administrariak, giza laguntzaileak, psikologoak... Bada hiruhilabetero dirua jartzen duenik ere. Denek helburu bera dute: presoek laguntzea. Beno, beren artean ez dute «preso/a» hitza erabiltzen, «interno/a» baizik. ADAP-eko batzuk, ondoan dugun Silvia adibidez, gartzelara joaten dira presoak —gizonezko nahiz emakumezko— bisitatzea, **adore ematera**, Antoniok esaten duen bezala, « berriz ibiltzen irakastera». Asteartero joaten dira. Horrez gain, gartzelako bizimoduan baimenak eskatzen dituzte atxilotuek, errektursoak bideratu behar dira eta abar. Batzuetan «paperak» nahi baino **motelago** ibiltzen dira, eta ADAP-ekoek **zubi**-lana egiten dute —gartzelako zuzendaritzaren aurrean, epailearen aurrean, kontsulatuaren aurrean, abokatuaren aurrean— guztia **azkartzeko**: «Horrela bost egunetakoa egun bakarrean egiten da batzuetan» esan digu C. Gomezek, ADAP-eko buruak. Eskutitzak ere idazten dizkiete ADAP-eko **bolondres**ek presoek. Asko estimatzen dituzte presoek eskutitzak. Eta, espexetik ospitalera eramaten badituzte, **HIESak** edo beste gaitzen batek jota daudelako, haraxe joango dira espexekoei lagun egitera, gaua pasatuz igoal, eta ez presoek **soilik**, baita presoek **sendikoei** ere: «Batzuetan sendia erdi-galduta dabil, ez du non lo eginik hirian, eta lotokia aurkitzen diogu» azaldu digu C. Gomezek. Eta sendiak gartzelara joan behar badu bisitari, ADAP-ekoekin batera joango da. Ordurako, sendiak badu, bolondres hauei esker, presoaren egoeraren berri; telefonoz hitz eginda daude ADAP-ekoak eta bisitariak. Paketeak eta arropa ere ADAPen bidez jasotzen dute. Eta ospitalarekin ere harremanak izaten dituzte: une jakin batean gaixoak botika bereziren bat behar badu, **jakinarean gainean jarriko** dituzte ospitalekoak: «Eta presoren baten urte betetzea



Ezkerretik hasita: Nieves, Clara Ines, Cecilia, Antonio, Maria eta Silvia.

baldin bada, postalen bat bidaltzen diogu, asko eta asko erabat bakarrik baitaude, ez **atzerritarrak** bakarrik. Ez gara inoren urte betetzeaz ahazten. Eta kasualitatez urte betetze-egunean kanpoan badago, ospatu egiten dugu berarekin batera».

Atzerritarrek, adibidez, izugarri **nozitzen** dute bakardadea. Clara Ines kolonbiarra da, eta lau urte daramatza **itzalean**. Orain bi urte ezagutu zuen ADAP: «Nik gartzelatik kanpo ez dut ez lagunik, ez senitartekorik, ez ezer. ADAP dago, eta **gaitzerdi!** Espexetik ateratzen banaiz —elkarrizketa-egunean gartzelara itzuli behar zuen lotara— ADAPi esker da».

Etxebizitzak

ADAPek Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Aldundiaren diru-laguntzak ditu. ADAPen egoitzaz aparte, bi etxebizitza daude Gasteizen, bertako Udalak utzita presoentzako; bat gizonezkoentzat eta bestea emakumeentzat. Gizonezkoen pisua HIESaren kontrako Komisioaren **ardurapean** dago, eta emakumeena ADAPek du. Hara joaten dira espexetik irteten direnean. Etxebizitza horietan lan batzuk egiten dituzte programa bati jarraiki. Nieves da hezitzaileetako bat: «Bi **hezitzaile** gara, eta etxebizitza hauetan famili giroa sortzen saiatzen gara, beraien konfidantza lortzen. Zera galdetzen dute: «Zu zergatik zaude hemen, zertara etorri zara? Hasieran ez dira gurekin fidatzen. Baina guk beraiekin hitz egiten dugu, **aintzat hartu, gizakiak** direla esan, ginekologoarengana joan nahi badute, **aholkatu**. Eta, batez ere, hortxe dute **beharrik** larriena eta, beren burua benetan estimatzen lagundu.

Normalean ez dugu hitz egiten delituaz, ez zaigu interesatzen, ez guri, ez beraiei. **Osteratxo bat ematera** ateratzen garenean, atzera begiratzen dute, norbait segika balute **legez**. Baina hori irudipena besterik ez da. Edo harrituta geratzen dira ate bat irekitzen dutenean. Gartzelan funtzionariak ireki behar du atea. Kanpoan norberak egin dezake hori». Antoniok hartzen du hitza: «Hasieran kanpoan leku guztietara begiratzen duzu, ea norbait **zelatan dagoen**. Eta gauez ameskaiztoak izaten dituzu, izugarrizko estresa baituzu gainean».

Gartzelako batek etxebizitza horietara joateko **hitzarmen** bat sinatuko du. Betebehar batzuk azaltzen dira hitzarmen horretan: etxeko lanak egingo dituztela, hezitzaileen baimenik gabe ez dutela kanpoko inor eramango, lotara etorriko direla gauero... Orain arte dena ondo atera da. Batzuetan herriren bat ikustera joaten dira. Elkarrizketa-garaian Donostiako Zinemaldia ikustera etorriak ziren batzuk, eta pozik: «Baina batzuetan etxean egon nahi izaten dute. Esaten diegu ea kalera atera nahi duten eta ezetz. Nahiago dute, batez ere emakumeek, leihotik begira egon, aurrean inolako leiho-sarerik gabe. Beraientzat izugarria da hori» azaldu digu Nievesek. Horrelako gauzak estimatzen dituzte, edo nahi dutena jan dezaketela etxe horietan: «Hori oso inportantea da» dio Antoniok.

Gartzelara doazenean, bisitaldi bakoitzean hamar lagun, bost gizonezko eta bost emakumezko ikusteko baimena dute. Baina, bistan dagoenez, ez dira bisitak egitera mugatzen. Horregatik dio Silviak: «Jendea behar dugu elkarrean. Laguntza gehiago».

ZUBI.- Puente.
AZKARTU.- Arindu. Agilizar.
BOLONDRES.- Voluntario/a.
HIES.- SIDA.
SOILIK.- Bakarrik. Solamente.
SENDI.- Familia.
JAKINAREN GAINEAN JARRI.- Poner al tanto, advertir.
ATZERRITAR.- Kanpotarra. Extranjero/a.

NOZITU.- Jasan, pairatu. Sufrir.
ITZAL.- Gerizpea. Sombra.
GAITZERDI!- Eskerrak! ¡Menos mal!
ARDURAPE.- Ardura+pe. Bajo el cuidado de. Era berean: arkupe, elizpe, pikupe...
HEZITZAILE.- Hezi+tzaille. Educador/a. -TZAILE atzizkiak egilea adierazten du. Adibidez: saltzaile, laguntzaile, aztartzaile...

AINZAT HARTU.- Kontuan hartu, kasu egin. Tener en cuenta.
GIZAKI.- Ser humano.
AHOLKATU.- Aconsejar.
BEHAR.- Premia. Necesidad.
OSTERATXO BAT EMAN.- Egurastu. Dar un paseo.
LEGEZ.- Bezala. Como.
ZELATAN EGON.- Vigilar, espigar.
HITZARMEN.- Contrato.

EGAÑAREN LOAK ZENBAT BALIO DUEN!

*Denon eskura daukagu loa
ta gainera merke-merke;
loaren bidez **uxatzen degu**
mila pena eta neke;
lokartu aurretik nere burua
trenai botako nioke
ta esnatzean, sarri askotan,
trena erosiko nuke. (bis)*

3 1993ko Bertsolari Txapelketa Nagusian bota zuen Egañak bertso hau. Euzkitze zuen bertso- lagun. Gaia, berriz, honela jarri zien Lazaro Azkunek: «Loa ere ez dugu guztiok berdin behar, ezta zuek ere. Andoni Egañak egunero 12 ordu lo egiten ditu. Xabierrek, aldiz, sei ordurekin aski du».

Andoni Egaña, gaur egungo txapeldun nagusia, Zarautzen jaio zen 1961ean. Bertsotan hasi eta berehalaxe **iritxi** zen **gailurrera**. Azken urteotan aportaziorik handientsuenak berak egin dizkio bertsolaritzari. Abildade aparta du ironia freskoaren bidez erantzun zorrotzak ematen. Bere estilo propioa du. Seguruenik, denbora asko baino lehen, «Egañaren Eskola» aipatzen hasiko gara. Beste hizkuntzatakako espresio asko **moldatu** ditu bertsoaren mesedetarako. Idazle, gidoigile eta aurkezle-lanetan aritzen da.

Loa erraz eskura daitekeen jeneroa, nekearen kontrako sendagai aparta da. Lo egin aurretiko egonezina eta lo egin ondorengo patxada kontraste biribila dira Egañarengan.

Zortziko nagusian dago bertsoa. Neurritz oso ondo moldatua. Moldatua esan dugu, eta esaten dugu, zeren neurrian kabitzearren hitzen bat edo beste apur bat moztu behar izan baitu: trenai, ta... Sinalefa bat ere badago: lokartu-aurretik. «UAU» silaba batean ebakitzen du. Errima aldetik azkeneko biak ez dira hain aberatsak, baina ematen duen arrazoia entzuteagatik ameti liteke horrenbeste. Dena dela, lau errimatan hiru gramatika-kategoria ezberdin darabiltza (adberbioa, izena eta aditza) eta hori ere **ez azaren barreneko orria**.

Hiru parte edo zatitan banatuko genuke. Bata, loa oso eskurakoia dela dioena, hau da, lehenengo puntua: *Denon eskura daukagu loa ta gainera*



UXATU.- Aihenatu, haizatu. Espantar.

IRITSI.- Heldu, ailegatu.

GAILUR.- Tontorra, erpina.

MOLDATU.- Tajutu, eratu.

AZAREN BARRENEKO ORRIA.- Balio gutxiko gauza edo pertsona.



merke-merke; bigarrena, neke eta penaren erremedioa dela esaten duena, bigarren puntu osoa: *loaren bidez uxatzen degu mila pena eta neke*. Hirugarren parteazkeneko bi puntuek osatzen dute, hain zuzen, arrazoiaren indarra eta bertsoaren karga biltzen direnak: *lokartu aurretik nere burua trenai botako nioke eta esnatzean, sarri askotan, tren a erosiko nuke*.

Baliabide literario aldetik honako hauek azpimarka litezke: «uxatu» erabiliz sortzen duen metafora, *loaren bidez uxatzen degu mila pena eta neke*. Esamoldea: *mila pena eta neke*. Batez ere, hizjoko handi bat darabil: trenari bere burua bota/trena erosi. Hori hizjokoa ezezik kontraste-errekurtsua ere bada; baita efektu handiagoa lortzearen propio erabilitako exajerazio-baliabidea ere.

DENON.- Plural hurbila. Nork bere burua sartzen duenean erabili ohi da gehienetan.

ESKURA (eduki).- Tener al alcance

MERKE-MERKE.- Errepikapenaren bidezko superlatiboa. Oso ohizkoa da euskaraz: geldi-geldi, poliki-poliki, ezkar-azkar...

TA (bertsotako lizentzia).- Eta

DEGU.- Dugu

LOAREN BIDEZ.- Loari esker.

LOKARTU AURRETIK.- Loak hartu baino lehen, loak hartzerako.

TRENAI (bertsotako lizentzia).- Trenari.

SARRI ASKOTAN.- Sarritan, maiz, askotan, frankotan... Erredundantzia eta indargile moduan erabiltzen dira biak batera.

NUKE.- Nor-nork, futuro hipotetikoa (nik hura)

NIOKE.- Nor-nori-nork, futuro hipotetikoa (nik hari hura)

Akaberako arrazoi hori ikaragarria da. Oso zaila bat-batean akordatzeko. Seguru asko, Egañak lehendik almazenean jasoa zeukan arrazoi hori edo antzekoren bat. Baina aurretik **landutakoa** aprobetxatzeko momentuari itxoiten jakitea bertutea da. Bere burua ondo kontrolaturik daukala eta **ahalbide** asko duela esan nahi du horrek. Erdi-ipurdiko bertsolaria, jeneralean, onenez aurrera aritzen da eta, hala ere, ezin buru eman. Hori imajina eskaini zigun txapeldunak! Horretarako jakina, argazki-makina punttu-punttuan dispartzen jakin behar!

RUFINO IRAOLA GARMENDIA

LANDU.- Jorratu, Cultivar, elaborar.
AHALBIDE.- Recurso.

BERRITSUA AL ZARA?

2 **Mihia** hitz egiteko daukagula diote, elkarren berri eta emateko. Neurria hartzea zaila izaten da, ordea. Batzuk **jario** handikoak izaten dira; mihia landu eta landu, azkenean isilik egotea zer den ere ahaztu egiten zaie. Beste batzuei, berriz, bi hitz elkarren segidan ateratzea zaila izaten da. Gero denak berdinak garela esango dute!

- 1.- Ordu-pare baterako gustukoena aukeratu.
 - a) Dantzalekua.
 - b) Zine-aretoa.
 - c) Kafetegia.
- 2.- Presaka zoaz lanera. Bidean adiskide bat aurkitu duzu.
 - a) Agurtu eta gelditu gabe aurrera.
 - b) Bi **txorakeria** esan dizkiogu elkarri eta aurrera.
 - c) **Kontu-kontari aritu** gara. Berandu iritsi naiz lantokira.
- 3.- Zertarako da telefonoa?
 - a) Lasai hitz egiteko. Telefonoari eskerrak adiskideekin elkartzeko **behar** gutxiago izaten dut.
 - b) Premiazko gauzak labur-labur esateko.
 - c) Geure bakardadea piska bat arintzeko.
- 4.- Bileretan hitz egiten al duzu?
 - a) Esan beharrekorik dudanean, bai.
 - b) Ez didate **nahi adina** hitz egiten uzten.
 - c) Ez. Zertarako?
- 5.- Igandean bazkalondoan zer egiten duzu?
 - a) Kontu-kontari aritzen gara mahaiaren inguruan.
 - b) **Lo-kuluskatxo** bat egin.
 - c) Lagunekin edo senitartekoekin nonbaitera joan.
- 6.- **Maitaleek** ohean...
 - a) Isilik egon behar dute. **Keinuak** eta nahikoa dira.
 - b) Laneko konturik ez dute aipatu behar. Bukatu ondoren bai.
 - c) **Hitz egitea badute**. Hitz goxoek ere lagundu egiten dute.
- 7.- Goikoek festa dute etxean. Oso berandu da eta ez dizute lo egiten uzten.
 - a) Gora igo naiz eta isiltzeko esan.
 - b) Gora igo naiz zer gertatzen zen ikustera. Festan gelditu naiz.
 - c) Ez naiz gora igotzen ausartu.
- 8.- Oso gai **sakonaz** ari zarete hizketan. Halako batean **isilune** luze samarra izan da.
 - a) Pentsatzeko ona da batzuetan isilik egotea.
 - b) Isiluneak ez ditut gogoko eta gai horri buruz zerbait esan dut.
 - c) Zer esan ez nekien, eta txorakeria bat esan dut. Ezin dut horrelako isilunerik **jasan**.
- 9.- Bidaia luze bat egin behar duzu kotxez.
 - a) Adiskide bat eramango dut bakarrik ez joateko.
 - b) Autostop egiten ari den baten bat hartuko dut bidean.
 - c) Ona da batzuetan bakarrik egotea.
- 10.- **Ileapaindegian** zain zaudenean...
 - a) Hango aldizkarietara erreparatzen diet.
 - b) Kontu-kontari aritzen naiz ilemoztailerekin.
 - c) Belarriak erne edukitzen ditut. Txanda iristen zaidanean, ordea, ilemoztailerekin hitz egiten dut.



BERRITSU.- Hitzontzia, hitzjariora. Charlatán.
MIHI.- Mingaina. Lengua.
JARIO.- Etorria, ekarria. Facundia, fluidez de palabra.
TXORAKERIA.- Huskeria. Tontería.
KONTU-KONTARI ARI.- Jardunean ari, eleketan ari. Estar de charla.
BEHAR.- Premia, beharizana. Necesidad.
NAHI ADINA.- Nahi hainbat. Cuanto se quiere.
LO-KULUSKATXO BAT EGIN.- Dar una cabezada.

MAITALE.- Amorantea. Amante.
KEINU.- Zeinua. Gesto, ademán.
HITZ EGITEA BADUTE.- Hitz egin dezakete. Pueden hablar.
SAKON.- Profundo. Aurkakoa; arina, azalekoa.
ISILUNE.- Momento de silencio.
JASAN.- Pairatu, nozitu. Soportar.
ILEAPAINDEGI.- Peluquería, salón de belleza.

Saharaiak kinka larrian

ATZERRIAN BIZI DEN HERRI ISILDUA

3 Tindufeko kanpalekuetara joango da laster Gurutze erizaina bi medikurekin batera, atzerrian bizi diren saharaiuei **ebakuntzak** egitera. Marokkoarrek lurraldea indarrez hartu zieten orain dela hemeretzi urte. Geroztik, Algeriako hamadan, **basamortuko** alderdirik lehorrenean, bizi dira ia 200.000 saharai beren herrialdera noiz itzuliko zain. Hamabost urtez marokkoarren kontra borrokan aritu ondoren, hiru urte daramatzate UNOk onartutako Bakerako Plangintzan sartuta. Aurtengo udan erreferendumean parte hartuko duten **hautesleen** zerrenda osatzen hasiak dira. Beren buruaren jabe izan nahi duten erabaki beharko dute bozketa horretan. Marokkok orain arte jarritako **oztopoak** ikusita, ordea, ez dute sinisten erreferenduma inoiz egingo denik. Eta ez dute hamadan jarraitzerik, basamortuko hareak **irentsiko** baititu.

«Palestinako umeek juduei harriak botatzen dizkietenean, mundu guztiko telebistetan eta egunkarietan azaltzen dira. Hegoafrikako beltzek istiluak dituztenean ere beste hainbeste. Gure herria, aldiz, ez da inongo komunikabideetan azaltzen, ez gerran egon garenean, ezta gero ere. Komunikabideek ahaztutako herria gara, herri isildua», salatzen du Mohamed Salem Hadj-ek, Gurutzeren gizonak. Mohamed Mendebaldeko Saharak Suedian eta Dinamarkan daukan enbaxadore da. Hala ere, Gurutze Algeriako kanpalekuetara doala eta, Euskal Herrira etorri da beren seme-alabak zaintzera. Bide batez, gurekin hitz egitera azaldu da.

Urtero bizpahiru mediku eta erizain-talde joaten dira Euskal Herritik, Gurutze bezala, ebakuntzak egitera. Hamabost eguneko oporretan 70 bat ebakuntza egiten dituzte basamortuko paraje **latz** hartan. Ez dira, ordea, Saharako herriari laguntzen dioten bakarrak.

GURUTZE IRIZARREK UTZITAKO ARGAZKIAK



KINKA. - Estuasuna, larrialdia. Trance.

ISILDUA. - Silenciado.

EBAKUNTZA. - Operación quirúrgica.

BASAMORTU. - Desertua, eremua. Desierto.

HAUTESLE. - Haute(t)s(i)+ le. Elector/a. Era berean: erosle, ikasle, idazle...

OZTOPO. - Eragozpena, traba.

IRENTSI. - Tragar.

LATZ. - Lakarra, gogorra.

Aurkakoa: biguna, goxoa.

RASD-en Lagunen Elkarte Ez Gobernuarraz gain, gure udal askok eskaini diote laguntza. Hasi Gasteizko eta Donostiako Udalak hasi ziren Saharako herriekin elkartzen, La Güera-rekin lehenbizikoa eta Bojador-ekin bigarrena. Gero beste hamasei udal joan dira arrasto beretik. Udan urtero-urtero basamortutik Euskal Herrira ekartzen dituzte umeak. Eskolan ikasitakoa ikusi —itsasoa, adibidez, lehenbiziko aldiz ikusiko dute— eta, batez ere, «beste jendea ezagutu, besteren elkartasuna sentitu. Ume horiek izango baitira Sahararen **geroa**, ez ditugu umeak **gorrotoan** hazi nahi», dio M. S. Hadj-ek gozo-gozo.

Hainbeste jende saharaiuen alde eta, hala ere, zein gutxi dakigun atzerrian bizi den herri horretaz! Gurutze Irizarrek bere bizitzaren kontakizunarekin argi piskat egin digu, Espainiak bere kolonia Mauritania eta Marokkoren eskuetan utzi zuenez geroztik han bizi izan baita, 1975.etik hain zuzen ere. Baina historian atzerago jotzea komeni da.

Espainiak, 1975ean, Mendebaldeko Sahara kolonian

burujabetasunerako erreferenduma egiteko asmoa zuen UNOren **babesean**. Marokkok, ordea, ez zuen horrelakorik onartzen. Urte horretan bertan milaka lagunek lehenbiziko ibilaldi berdea egin zuten Marokkotik Saharara. Franco hilda, transizio-garaiko ahuldadeak jota edo, Madrilgo gobernuak atzera egin zuen. Mauritania eta Marokkorekin batera **hitzarmena sinatu** zuen 1975.ean: Saharako Iparraldekoa Marokkorentzat eta Hegoaldekoa Mauritaniarentzat.

«1975.ean, marokkoarrak eta mauritaniarrak Saharan sartu zirenean —dio Gurutzek—, saharai askok basamortura jo zuten. Baina ez zegoen ezer prestatua aurretik; inork ez zuen horrelakorik espero. Saharako **ekialdera** joan nahi zuten. Baina ez zegoen pasabiderik, marokkoarrak eta mauritaniarrak gure zain zeudelako. Basamortuan kanpalekuak **antolatu** ziren, ekialdera pasa zain. Hor egin ziren munduan izan litezkeen astakeriarik handienak, napal-bonbaketak eta guzti. Jende asko hil zen eta hil ez ginenak — gizonak armak hartuta—

Tindufeko kanpalekuetara joan ginen, Algeriara. Oso latza izan zen hasiera hura. Bonbak botatzen zizkiguten eta gure artean ez zegoen medikurik, lau erizain besterik ez ginen, Espainiak koloniakoan mediku saharaiarik sortu ez zuelako. Gero, Algeriako kanpalekuetan hainbeste jenderetzat dirurik gabe dena antolatu behar: osasun-arloa, hezkuntza, **elikadura**... Algeriak asko lagundu digu, eta mundu guztiko Elkarte Ez Gobernuarrek ere gure alde egin dute, baita zenbait udaletxek ere, baina oso latza da hamadan bizitzea. Hamada basamortua baino basamortuagoa da, landarerik, zuhaitzik gabeko ingurua, inork bizi nahi ez duen tokoa. Udan 47-50 egunez, neguan -5 gradu. Gero sirokia... hondar-**ekaitzek** behin eta berri zenda-kanpainak hankaz gora botatzen dituzte. Eta elikadura. Bitamina, mineralak... denetik eskas. Babarruna, lenjetak, makarroiak, arroza... horrelako gauzak jaten dituzu egunero-egunero; paraje hartarako batere janari egokia ez». Mohamed senarrak gogorarazi digu UNOko Atzerriaratu Batzordeak 70.000 lagunentzako jana ematen diela, eta kanpalekuetan ia 200.000 bizi direla.

Gurutzek hamahiru urte iraun zuen basamortuko bizimodu horretara jarri nahian. Baina osasunak laguntzen ez eta, etxera etorri behar izan zuen. Orain Euskal Herriak laguntzen die eta, ahal duenean, 15 egunetarako joaten da kanpalekuetara. Aurten bigarren aldiz joango da zirujauarekin batera: «Haiek hemeretzi urte daramazkite han», dio. Gauero-gauero gogoan ditu hamadako **bizilagunak**. Lanerako grina ez du galdu oraindik horraatik, baina ez du itxaropenik. Ez du uste 1991.ean sinatutako Bakerako Plangintzak ezer onik ekarriko duenik.

la 200.000 lagun bizi dira Algeriako hamadan, basamortuko lekuri lehorrenean. Hemeretzi urte daramatzate hantxe. Ez dakite noiz arte.

GERO.- Etorbizuna. Futuro.
GORROTO.- Aiherkundea, ezinikusia, herria. Odio.

BABES.- Protección.
HITZARMEN.- Akordioa. Contrato.
SINATU.- Izenpetu. Firmar.
EKIALDE.- Soraldea, eguzkialdea. Este.
ANTOLATU.- Eratu, moldatu.


ELIKADURA.- Alimentación.
EKAITZ.- Zirimola, denboralea. Tempestad.
BIZILAGUN.- Biztanlea. Habitante.

BAKERAKO PLANGINTZA

Gerra 1975.ean hasi zen, Mauritaniak eta Marokkok Sahara hartu ondoren. Lau urteko borroka latzen ondoren, Mauritaniak atzera egin zuen, Polisario-rekin Bakerako Hitzarmena sinatuta. Marokkok eta Polisario-k, ordea, borrokan jarraitu zuten 1990.era arte. Urte horretan saharauek, Bakerako Plangintza erraztearren, borroka utzi zuten. 1991.ean Marokkok eta Saharak hitzarmena sinatu zuten UNOren eta Afrikar Batasunerako Erakundearen babesean. Baina hiru urte geroago ez da **irtenbiderik** ikusten.

Erreferenduma espainiarrek 1974.ean egindako **errolaren** arabera antolatzea erabaki zuten bai Marokkok bai saharauek. 74.000 saharaui bakarrik zeuden paperetan, herri **ibiltaria**, nomada, izan baita beti. Errola harekin, ordea, erreferendumean galdutako egingo zutela konturatu ziren marokkoarrak, saharauek beren burua jabe izan nahiko zutela. «Marokkoarrak oztopoak jartzen dabiltza beti —dio Mohamed Salem Dahak, Euskal Herrian dagoen Saharako enbaxadoreak—, luzatu eta luzatu. Errola zabaldu egin behar zela zioten, garai batean jende asko joan zela Saharatik Marokkora bizitzera. Eta guk onartu genuen hori, espainiarren erroldan ez zeuden saharauiak sartzea, Marokkon zein Mauritania bizi zirenak. Baina saharauiak bakarrik. Nola **frogatu** saharauiak direla? Espainiarren garaitxo agiriren bat erakutsita: **gidatzeko** agiria, ezkontz agiria... Marokkoarrek zer egin dute, ordea? Lurralde okupatueta Espainiarren garaiko agiri guztiak **bildu**. Erroldan dagoen saharauiaren anaia, osaba, hiloba eta beste senitarteko zuzenak ere saharauiak direla onartu behar da. Saharako **leinuetako** buruek ere esan dezakete zein den saharaui eta zein ez. Baina gutxitan egongo da honen beharra, saharaui gehienek izango baitute agiriren

ARGAZKIA: X. ELGEZABAL



Mohamed Salem Doha, Saharak Euskal Herrian daukan enbaxadorea. Espainiak eta Frantziak, dena den, ez dute Sahara estatua onartzen.

bat edo beste. Marokkok beste modu batean erabili nahi du ahozko frogak. Koranaren gainean saharauiak dela **zin egiten** duen guztia sartu behar da erroldan. Horrela 150.000 saharaui berri atera nahi dituzte ez diren tokitik. Era horretan irabazi egingo lukete erreferenduma. Guk ez dugu uste Marokkon 2.000 baino gehiago egongo direnik eta haiek 150.000 asmatu nahi. Irizpide hori ezin dugu onartu».

Marokkoko enbaxadak ukatu egin dio aldizkari honi ahozko frogak horrela egin nahi dutenik. Saharako leinuetako **buruzagiek** ziurtatu behar dutela diote enbaxadakoek, saharaui guztiak ezagutzen dituztelako.

Irizpideak ondo finkatu gabe aurtengo udan, abuztuan hain zuzen, UNOk sortutako **batzorde** bat hasi da hautesle-agiriak banatzen. Datorren urtearen hasieran antolatu nahi dute erreferenduma. Baina inork ez du hori sinisten. Marokkok ez du Afrikar Batasunerako Erakundearen **begiralerik** nahi batzorde horietan. Polisario-k batzordeei lan egiten utziko die. Erabili dituzten irizpideak zuzenak

izan badira —Koranaren gainean saharaui direla zin egitea ez dute zuzentzat hartzen—, eta erreferenduma arau demokratikoen arabera eratzen bada, ontzat hartuko dute. Ez dute **inola ere** onartuko «gaur egun Saharan dauden 180.000 soldadu, 150.000 polizia eta funtzionario eta ia 200.000 kolono marokkoar hantxe egotea, askatasuna behar baita erreferenduma egiteko», dio M.S.Hadj-ek. Saharako enbaxadore honek uste du Bakerako Plangintza Marokkok asmatutako **trikimailu** bat dela: «Hiru urte daramatzagu zain. Haiek lasai daude borrokarik gabe; guk, berriz, beste hiru urtez **jasan** behar izan dugu hamadako bizimodu latza. Noiz arte? Gainera, diru-arazo handiak dauzkagu. Bakerako Plangintza hasi zenetik zenbait elkartek laguntzak kendu dizkigute, erreferenduma berehalako batean egingo zelakoan. Baina ez da hala izan. Algeriak laguntzen jarraitzen du. Baina krisi ekonomikoa dela eta, diru-laguntzak eta **muriztu** egin dizkigute. Zer nahi du Marokkok? Gure onetik atera eta gu geu berriz hastea gerran?».

IRTENBIDE. - Konponbidea. Solución.

ERROLDA. - Censo.

IBILTARI. - Batetik bestera ibiltzen dena. Andariego/a, nómada.

FROGATU. - Egiaztat. Demostrar

GIDATU. - Conducir.

BILDU. - Jaso. Recoger.

LEINU. - Tribu.

ZIN EGIN. - Prestar juramento.

BURUZAGI. - Jefe.

BATZORDE. - Comisión.

BEGIRALE. - Supervisor/a

INOLA ERE. - Inondik ere. De ninguna manera.

TRIKIMAILU. - Azpikeria, amarrua. Trampa.

JASAN. - Nozitu. Sufrir.

MURIZTU. - Gutxitu, urritu. Disminuir.

APAIZ BATEN NEKEAK ETA PENAK

3 Bazen, orain dela urte asko eta asko, herriska txiki bat mendian ezkutaturik. Herriska gehienetan bezala, udaletxea bazuten, baita enparantza eta etxe-mordoska bat ere eta, jakina, eliza dotorea. Eliza polit hartako apaiza, ordea, ez zen batere **zoriontsua**, herritarrak ez baitziren oso **elizkoiak** antza.

Apaizak bere buruari galdetzen zion ea zer egin behar ote zuen jendea mezetara erakartzeko: «pentsatzen eta pentsatzen dihardut, hamaika buelta eman dizkiot arazoari, baina ezin diot irtenbiderik aurkitu». Jendeak nahiago zuen kalean egon eliza hartan baino.

Egun eguzkitsuetan mendira joan ohi ziren, janari eta guzti, eliza eta apaiza atzean utzirik. Txorien kantuak eta erreken gurgurioa entzuterak. Udaberriko loreen lurrina usaintzera, ibaiko harri **leunak** behatzez ukitzera eta haizea aurpegian sentitzera. Zuhaitzetako fruitu gozoak dastatzera eta, batez ere, naturaren koloreak ikustera: soroetako berde bizigarria, zeruko urdin argitsua, algadoizko **hodei** mardulen zuritasuna, eguzkiaren gorri itsutzailea, **haitzetako** gris goibela eta ibailetako uren **gardentasuna**.

Konpetentzia handia zeukan, beraz, gure apaiz gizajoak: «nire eliza honetan daukadanak, polita bada ere, ez du soinurik, ez usainik eta ezin da ukitu. Ez dauka zaporerik ezta kolorerik ere. Fedea ezin dugu **ferekat**u eta jendeak ez ditu maite, nonbait, sentitzen ez dituen gauzak».


Hala eta guztiz ere, apaizak ez zuen **etsitzen**. Nola edo hala ikusi nahi zuen eliza hura pertsoez gainezka, egun bakar batez behintzat. Pentsatzen jarraitu zuen, pentsatzen eta pentsatzen: «fedeari formarik edo zaporerik ematerik balego, jendea fededun bihurtuko litzateke eta nere heiburua lortuko nuke». Nahiz eta asko saiatu, ezin zuen, ordea, ezer egin.

«Zer egin behar ote dut, Jainko maltea, herritarrak nire mezetara etor daitezen?» galdetzen zion goizero aldairearen atzekaldean zegoen Kristo **iltzatuari**. Honek ez zion erantzuten.

Behin batean, gogoeta hauetan **murgilduta** zegoela, kanpai-hotsak aditu zituen urrunean, hego-haizeari esker bere belarrietaraino heltzen zitzaizkionak. «**Hor dago koxka!**» esan zuen aurpegia alaituz. «Sekretua naturaren **xarma** guztiak nire eliza honetan biltzean **datza**. Hori egingo banu, herriskako bizilagun gehienak etorriko litzazkidak sermoiak entzuterak».

Nondik hasi, ordea? Lehenik eta behin **ezkilak** konpondu zituen, denboraren poderioz erabat **herdoilduta** baitzeuden. Ondoren, **beirategiak** kontu handiz garbitzeari ekin zion, hautsaren azpian mila koloretako kristaltxoak deskubrituz.

Bere sotana ere aldatu egin zuen, hain zaharra zen ez zuela jadanik inolako margorik. Kutxan gordetzen zituen ostiak berritzeko asmoa zuen eta herriko **okinari** «ahalik eta gozoenak egin ditzazun nahi dut» esan



ZORIONTSU.- Zorion+tsu. Dohatsua. Feliz. -TSU atzizkiak ugaritasuna edo oparotasuna adierazten du. Adibidez: harritsu, osasuntsu, euritsu...

ELIZKOI.- Elizara joateko joera edo ohitura duen pertsona.

LEUN.- Biguna. Suave.

HODEI.- Lainoa. Nube.

HAITZ.- Arkaitza. Roca.

GARDENTASUN.- Transparencia.

FEREKATU.- Pailakatu. Acariciar.

ETSI.- Amore eman. Ceder, desesperar.

ILTZATU.- Clavado.

MURGILDU.- Sumergir.

HOR DAGO KOXKA.- Hor dago gakoa. Ahí está la clave, la madre del cordero.

XARMA.- Lilura. Encanto.

DATZA.- Consiste en.

EZKILA.- Kanpaia. Campana.

HERDOILDU.- Ugertu. Oxidar.

BEIRATEGI.- Vidriera.

zion. Ez zen intsentsuaz ahaztu eta beste perfume erakargarriagoak ere lortu nahi zituen.

Baina naturaren dohaiak nahi zituenez, zaku handi bat bizkarrean, basorantz abiatu zen. Zakutik kristalezko ontzi batzuk atera eta zuhaitzetan **eskegita**, errekaen ondoan eta mendi-tontorrean ipiniz, haizearen kantua, ibaiko uren zurrumurrua, txorien txio-txioa eta animalien oinotsak **orbel** erorian bildu zituen.



«Loreak jasoko ditut beren lurrina eman diezadaten, baita itsasertzeko **kresalaren** usaina ere» pentsatu zuen bere barrurako.

Zakutik ispilu handi bat atera zuen eguzki-izpiak elizarantz bideratzeko. Aizkoraz egur usaintsuak moztu zituen okinari eramateko asmoz. «Ostiak zaporetsuak atera daitezen» bururatu zitzaion apaiz zintzoari.

Zama astun hura pozaren pozez jaitsi zuen herrira eta kaleetan barrena zihola bidera atera zitzaion jendeari zera esanez: «bihar etor zaitezte mezatara eta Jainkoa ikusiko duzue» herritarren ikusmira piztu zuen.

Egunsentian, leihoak ireki gabe, elizara jaitsi zen zuzen-zuzenean. «Atzo pototan bildutako soinuak eta usainak isuriko ditut» pentsatuz okinak ekarritako ostiak aldarean utzi zituen.

Mendian utziriko ispiluak bidaltzen zuen argitasunak mila kolorez bete zuen eliza, **zein baino zein ikusgarriagoa**. Ondoren, kanpandorrera igo zen eta, soka luzeari eraginez, brontzeko ezkilen **oihartzun** erakargarria herritarrek biltzen hasi zen.

Hamabietarako eliza gainezka zegoen eta apaiza mezarekin hasi zen. Pulpitotik ihardun zuen bere jantzi dotoreekin eta ahots erritmikoz. Ikuslegoa zeharo hipnotizaturik zeukan: olatuen hotsa, belarraren usaina, **ortzadarraren** koloreak eta **basaranen** zaporea somatu zituzten eliza hartan bildu zirenek.

Amaitutakoan, haatik, **elizmutila** inguratu zitzaion «etorriko al da berori nirekin» galdetuz. Haurraren atzetik irten zen kalera: isiltasuna zen nagusi, iluntasunarekin batera. Landareek ez zuten usainik eta sagarrondotik hartutako fruitu bat frogatuz zaporerik ez zuela ohartu zen.

Elizmutilari begiratu zion eta «zer gertatzen ari da?» galdetu nahi izan zionean, hitzak eztarrian trabatu zitzaizkion. Behatz dardartiez mutikoaren **adatsa** ukitu nahi, baina ez zuen ezer sentitu.

Berehala jabetu zen gertatzen ari zenaz eta Jesus batean korrika abiatu zen eliza aldera. Arnasestuka eta beldurturik, ontzi guztiak berriz jaso eta basora itzuli zen berriro potoen edukia (naturari lapurtu zizkion soinu, kolore, usain eta zapore oro) bertan aske utziz.


Etixeratu bezain laster, aldareko Kristo iltzatuari barkamena eskatu zion **bekoz beko**, malkoek begiak lausotuta, horrelakorik berriro egingo ez zuela **zin eginez**.

Imanol Sorondo
Hernaniko Udal Euskaltegia

OKIN.- Ogia egiten duena. Panadero/a.
ESKEGI.- Zintzilikatu. Colgar.
ORBEL.- Hosto ihartua. Hojarasca.
KRESAL.- Gesala. Salitre.
IZPI.- Errainua. Rayo.
ZAMA.- Pisua. Carga.

EGUNSENTI.- Goiztiria. Amanecer.
ZEIN BAINO ZEIN IKUSGARRIAGOA.- Cada cual más impresionante.
OIHARTZUN.- Eco.
ORTZADAR.- Arco iris.
BASARAN.- Endrino, arañón.
ELIZMUTIL.- Akolitoa. Monaguillo.
ADATS.- Cabellera.
BEKOZ BEKO.- Aurrez aurre. Cara a cara.
ZIN EGIN.- Jurar.

HITZ GEZIDUNAK

		*Izena	↓	*Deitura	↓	Arrautzak	↓	Mundu-
		Lepotik		Italiako		jarri		ratu
		sabelera-		dirua		Roentgen		gintuena
		nokoa	→					
		104	→			Arma	→	
		Kanoa				erdian		
		handia	→			Egunsenti-		
						ko orduak		
Eginbeharra	↓	Araz-	↓	Moiseren	→			
Aztala eta		tasuna		anaia				Afrikako
izterra		Bizk.,		Uranioa				estatua
lotzen ditu		gehiagi						
→						Harridura	→	
						adierazteko		
						Sodioa		
Jatorri	→			Barkua	→			
atzizkia				Bihi,				
Bizk.,				garau				
hitza								
→				Ate	→			
B	E	R	B	inguru				
				Euskal				
				sindikatu				
Bigarrena	→	Bilo	→			Landare	→	
Beste era		Ipar,				lekadun		
batera		... egin,				Iker,		
		begiratu				araka		
→								
						Nor-nori	→	
						nork forma		
						Zerbaitez		
						gabetu		
Hemendik	→			Gainerako-	→			
hara habil				en atzetik				
Modu				dago				
atzizkia				Ukatzeko				Erregela
→								
		Selenioa	→					
				Infusioa	→			Bokala
				... -gabe,				Erdi,
				etengabe				hitz
								elkartetan
Kontso-	→	Lagatzen	→					
nantea		Ihar						
Gai zuri		hasieran						
→				Arreta,	→			
				kezka				
				Kontso-				
				nantea				
Ardiaren	→					Beroaren	→	
ar						eraginez		
adardun						likido		
						bihurtu		

LOGIKA-JOKOA

		DEITURA				AFARIA (Pta.)				POSTUA			
		Zorriketa	Agirre	Milonga	Ramirez	4.200	4.300	4.400	4.600	Kalegar-bitzailea	Ehorzlea	Udaltzaina	Atezaina
IZENA	Pablo	E	E	B	E								E
	Ernesto			E									
	Txetxu			E									
	Zalao			E									
POSTUA	Kalegar-bitzailea												
	Ehorzlea												
	Udaltzaina												
	Atezaina						E		E				
AFARIA (Pta.)	4.200			E									
	4.300			E									
	4.400												
	4.600												

Ustelkeria udaletxean!?

Ezer frogatu ez bada ere, susmo txarrak zabaldu dira Elizalde herrian zenbait zinegotziren jokabideari buruz. Izan ere, ustezko iruzurrak gertatu bide dira udal lanpostu batzutarako lehiaketetan. Esku artean ditugun datuez baliatuz, aurki itzazu zinegotzi ustelen izen-deiturak, zein postutarako lehiaketan zegoen mahaiburu kargudun horietako bakoitza eta zinegotziak eta postua lortutako lehiakideak herriko ostatuan egindako afariaren fakturaren zenbatekoa.


- Herriko eskolako **atezain** postua lortu zuenari **Pablo Milongaren** afaria ordaindu zuenari baino **berrehun pezeta merkeago** atera zitzaion.
- Zalao** izena ez duen **Zorriketa kalegarbitzailea** aukeratzeko mahaiburu zen eta haiek egindako afaria **udaltzain** postua lortu zuenak ordaindurikoa baino **ehun pezeta garestiagoa** izan zen.
- Txetxuren afaria **Agirrek** egindakoa baino **berrehun pezeta garestiagoa** zen.

Argibideak

Eskeman agertzen den **B** (Bai) letra 1. saileko datu zuzenak gurutzatzen diren laukitxoan ezarria dago; orobat, **E** (Ez) letraren bidez 1. sailean ageri diren ezintasunak adierazten dira. Datuak arretaz irakurri ondoren, hutsenak zeinu horiekin (**B**, **E**) bete behar dituzu. Ondorio zuzenak lortu ahala, soluzio-taulara pasa ditzakezu.

IZENA	DEITURA	AFARIA	POSTUA

JEROGLIFIKOA





Lapurra, emadazu...

LETRA-ZOPA


Aurki itzazu irudi hauei dagozkien hitzak. Ondo gogoan hartu norabide guztietan aurki daitezkeela.

T	A	M	K	L	A	T	U	M	E
M	X	A	A	I	K	R	E	T	A
I	E	I	O	R	A	N	R	L	S
L	S	L	M	B	D	O	A	R	U
I	K	U	A	I	O	I	L	A	R
T	A	R	Z	T	S	A	R	K	E
A	T	A	P	L	A	T	E	R	A
R	L	O	Z	A	R	R	A	M	L
E	A	T	S	P	E	Z	O	K	A
Z	E	N	I	T	U	R	R	I	N



HAINBAT FILME ZENBAIT DISKOTAN BILDURIK


3 Gero eta **arreta** handiagoz zaintzen dituzte **sortzaileek** filmeen soinu-bandak. Gero eta animosoago erosten ditugu guk maite ditugun zeluloidezko pusken **oihartzunak**. Inoiz baino maizago iristen dira zinemako abestiak gehien entzuten diren kantuen zerrendetako **gailurrera**. Frogarik behar duzue? Ez ahaztu «Reservoir Dogs»en «Hook on a feeling» edota «Cuatro bodas y un funeral»eko «Love Is All Around».



Zbigniew Preisnerrek jarri zien musika Kieslowskiren koloreei.

Betidanik ibili dira elkarlanean, auzolanean Krzysztof zinemagilea eta Zbigniew musikagilea. Honen musikaren arrastoak **txunditu** gintuen «La doble vida de Verónica»n. Harrezkero, «Azul» eta «Blanco»n egin dugu topo musikari poloniarrekin. «Azul»etik «Song for the Unification of

Europe» gogoratuko dugu egun eta eguzki. «Blanco»tik, berriz, Poloniako polka, umore beltzaz betetako hura. «Rojo»n Ravelen boleroaz egindako horrenbeste joko, aldaketa, **bihurrikeria** eta kantu ezberdin inoiz ez ditugu ahaztuko.



Tarantino eta bere lagunaren ahots perikulosoak

«Pulp Fiction»ek Urrezko palmorria irabazi zuen Cannesen. Quentin

Tarantinoren lan ganberro eta sekulakoak aldekoak hainbeste ditu **etsaiak**, baina ezin ukatu soinu-bandako kantak filmeko hamaika aldareri izugarri ondo egokitzen zaizkiela. Plazaratu den diskoan gidoiaren zenbait zati entzuten dira eta abestietan botatzen direnak ez dira prexiko, amodiozko esaldi gozoak. Estatu Batuetako zentsoreak beldurtu egin dira eta ale guztietan ohartxo jarri dute: «Kontuz haurrekin, kanta hauen esanahia gogorra da eta». **Jaramonik ez egin**, arren, eta «Girl, You'll be a Woman soon» edota «Surf Rider»ren erritmo zoroan **murgil** zaitezte **agudo**.


Priscilla izeneko autobus zeluloidezkoan ABBA entzuten da

«Las aventuras de Priscilla, reina del desierto» Australiatik etorri zitzaigun komedia eroa dugu. Kritikari serioek **muzin**


ARRETA.- Ardura. Cuidado.
SORTZAILE.- Sor(tu)+zaile.
Creador/a. Era berean:
banatzaile, saltzaile, salatzaile...
OIHARTZUN.- Eco.
GAILUR.- Tontorra, punta, erpina.
TXUNDITU.- Zeharo harritu.
Asombrar.

BIHURRIKERIA.- Travesura.

ETSAI.- Arerioa, kontrarioa.
Enemigo.
JARAMON EGIN.- Kasu egin,
aintzakotzat hartu. Hacer caso.
MURGILDU.- Sumergir.
AGUDO.- Azkar. Rápidamente.
MUZIN EGIN.- Arbuatu. Rechazar.



egin diote, baina ikusleek txaloz eta algaraka jaso dute. Soinu-bandan, erdi ahazturik genuen Abba talde bigun, guri, **malgu** baten kantuak. Tantzetan hartzeko moduko enbido musikala, baina, zergatik ez aitortu?... musika bero eta diskoetxetan dantzatzeko ezinhobea.



Maiteminez dauden bi hiltzailerentzako musika

«Asesinos natos» filme Oliver Stonek eginak mundu honen

lau izkinak **bapo asaldatu** eta astindu ditu. Arriskutsua dela dio zenbaitek. Modaz pasata dagoela uste dute askok. Nere **aburuz**, zine-azti batek buruturiko lan ero, bikain eta itogarria da. Bai irudietan bai musikan ere, 75 abesti daude **maltzurkeria** osoz bildutako soinu-bandan. Leonard Cohenen «Waiting for a Miracle» hortxe da. Baita Lou Reeden «Sweet Jane» ere. Ezin falta Peter Gabrielen «Taboo» Aurkituko dugu Patti Smith, Bob Dylan eta Cowboy Junklesen arrastorik ere.



Eztei eta hiletetako musika gazigozoa

«Cuatro bodas y un funeral» filme britaniarra maite dugula ez da ixilean gorde beharreko **aitorpena**. Inork ez digu ukatuko duen soinu-banda bihurria **arras** gomendagarria dela. Aspaldikoak dira horko hainbat kanta. Gloria Gaynorren «I Will Survive» edota Stingen «The Secret Marriage», kasu, baina axola gutxiko kontua da hori. Bizi-bizirik diraute jolas dibertigarrietan diharduen komedia honetan.



Gauaren erregin tristetua

«La reina de la noche» ez da aipatu ditugun beste filmeak bezain ezaguna, baina melodramaren min ikaragarriak **besarkatzen** ditu irudi eta soinuak. Mexikoko musikaren erreginaren bizitza **garratza** jartzen digu begien aurrean. «Por un amor», «La Tequilera» eta «Acaso» bezalako bolero, tango, rancheras eta corridos horiek emakume zorigaitzoko baten islada iluna dira. Dotorezia **atsekabetua** darion ispilu **goibeldua**.

BEGOÑA DEL TESO

MALGU.- Flexible. Aurkakoa: zurruna, gogorra.
IZKIN.- Ertza, kantoia. Esquina.
BAPO.- Ederki, primeran.
ASALDATU.- Aztoratu. Turbar.
ABURU.- Iritzia. Opinión.
AZTI.- Brujo.
MALTZURKERIA.- Malicia.


AITORPEN.- Aitor+pen. Confesión, declaración. -PEN atzizkiak ekintza eta horren ondorioa adierazten ditu. Esate baterako: egiaztapen, laburpen, itzulpen...
ARRAS.- Zeharo, guztiz.

BESARKATU.- Abrazar.
GARRATZ.- Mingotsa. Kontrakoa: gozoa, ezia.
ATSEKABETU.- Nahigabetua, minberatua.
GOIBELDU.- Ilundua, mindua. Entristecido.

Kaoporrak

ETA UME ZIRIN BATZUEN ISTORIO ERAGABEKOA!

1976; O N D A R R O A:
"BESTE INON BAINO TENDE XEBRE ETA
BURLOSO GEHIAGO DAGOEN HERRIA..."



UME ZIRIN. - Ume ezinegon edo urduria.
ERAGABEKO. - Itxuragabekoa. Inverosimil.
SOLO. - Soroa, baratza. Huerta.

ITSASLAPUR. - Pirata.
BELAUN. - Casta, descendencia.
ZARAMA. - Zaborra, hondakina. Basura.



ZERRATEGI.- Aserradero.
ARROKA.- Arkaitza, haitza.

GANORABAKO.- Sin fundamento.
OSTERA.- Berriro. Nuevamente.



EGUN HARTAN ERE MUTIKOAK
PREST ZEUDEN BEREN AXIOA
EGITEKO. BAINA JON INAKIK EZ
ZUEN MAKILA BEHAR BEZAIN
AZKAR ERABILI ETA TXAPELA
PETRILAREN GAINEAN GERATU ZEN.



HURA AMORRUA
KAOPORREXENA!

HALAKO ZAPLASTEKO
EMAN ZION JON INAKIRI,
KAIKO KAIO GUZTIAK
IZUTU ZIRELA HOTSAREKIN!!



HORREK SUTAN JARRI
ZITUEN MUTIKOAK ETA, JON
INAKIREN HAGINAK BILDU
ONDOREN, MENDEKUA NOLA
HARTU PENTSATZEN JARRI ZIREN



HANDIK BI EDO HIRU
EGUNETARA HAN DOA
BETI BEZALA KAOPORREX
ALDATZAN GORA, EZEREN
SUSMO TXARRIK GABE

JAKINA
ALDAPAN GORA
EZ BAIT DA
FRENOEN BEHARRIK

HIRU

AXIO.- Mala acción, mala jugada.

PETRIL.- Pretil.

AMORRU.- Haserrea, amorrazioa. Rabia.


ZAPLASTEKO.- Belarrondokoa, zartakoa.

KAI.- Nasa. Muelle.

KAIO.- Antxeta. Gaviota.

HAGIN.- Hortza. Diente, muela.

JEROGLIFIKOA



Lapurra, emadazu...

N-irezA-Marra= Nire Zamarra



LOGIKA-JOKOA

IZENA	DEITURA	AFARIA	POSTUA
Pablo	Milonga	4.600	Ehorzlea
Ernesto	Zorriketa	4.300	Kalegar-bitzailea
Txetxu	Ramirez	4.400	Atezain
Txetxu	Agirre	4.200	Udaltzain

TEST

- a) 2 b) 1 c) 3
- a) 1 b) 2 c) 3
- a) 3 b) 1 c) 2
- a) 2 b) 3 c) 1
- a) 3 b) 1 c) 2
- a) 1 b) 3 c) 2
- a) 2 b) 3 c) 1
- a) 1 b) 2 c) 3
- a) 3 b) 3 c) 1
- a) 1 b) 3 c) 2

25 PUNTUTIK GORA

Berritsuak ez daki isilik egoten, hitzaren menpean bizi da, drogazaleak bezalaxe. Zeure burua **gaisotzat hartu** beharko duzu hemendik aurrera. Jendeak hitzontzi edo antzekorik esaten dizunean, beraz, baduzu **aitzakia**, **sendaezinezko gaitza** dela erantzun eta aurrera.

17 PUNTUTIK 25 PUNTURA

Zu behintzat saiatzen zara neurria hartzen. **Solasa** gustukoa baduzu ere, ez zara **bakarrizketaren** zale. Gehiegi hitzegiteko beldurrez bizi zara.


17 PUNTUTIK BEHERA

Zuri labur-labur esan behar: **zu bai isila!**

HITZ GEZIDUNAK

		*Izena Lepoetik sabelera- neldoa	L	*Delirio Halluko dima	P	Arantzak juri	E	Mund- raia gintxeta
			B		U		L	
		104	C		I	Arma edon	V	Egusent- ko ordurik
		Kanua handia	P		I		R	M
			A		R		A	G
Egiteberrak	B	Ara- tasuna	G	Moleren anala	A	Harritura adierazteko	O	Aukera
Artala eta luzen ditu	B	Bik- gehigi	G	Urtunon	A	Sudia	O	Lalido
Jaurri atzekia	T		A	Borkua	R		O	N
Bizk- hitzia	T		A	Bibi, garso	R		O	N
	B		E	Ate inguru	R		O	N
Bigurrena	B	Bilo	E	Euskal sindikatu	R		O	N
Bele era batera	B	Ipur- egile, begirata	E	Landare lekadun	R		O	N
	B		E	Ikur, arrika	R		O	N
Hemendik hara haur	H		O	Nor-nor mork forma	R		O	N
Modu atzekia	H		O	Zerbitut- gabea	R		O	N
	K	Selenio	S	Gainerako- en atzetik dago	R		O	N
Kontso- nitatea	R	Lagaten	U	Ukutzeko	R		O	N
Gui zuri	R	Ihar hustean	U	Infusioa	R		O	N
	I		R	Infusioa	R		O	N
Artalaren ar- adardun	A		H	Infusioa	R		O	N

LETRA-ZOPA



SOLUZIOAK: Ardi, mailu, iturri, militar, plater, mendizale, tximista, marrazo, oilar, aterki.

GAISOTZAT HARTU. - Tener como enfermo/a.

AITZAKIA. - Estakurua. Pretexto.

SENDAEZIN. - Incurable.

GAITZ. - Gaisotasuna, eritasuna. Enfermedad.

SOLAS. - Hizketa, berriketa, jarduna. Charla.

BAKARRIZKETA. - Monólogo.

ZU BAI ISILAI! - Zu bai zarela isila!

¡Tú sí que eres callado/a!

HOROSKOPOA

3

ARIES

Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra

Usteak erdia ustel. Gauzak nahi bezala ez zaizkizu egokituko. Zer egingo diogu bai! Datorrenean datorrenari erantzuten ikasi beharko duzu. Epe honetarako gomendagarriak, bidai liburuak. Tangoa dantzatzen ikasten baduzu, norbaitek begia botako dizu.

TAURUS

Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra

Bizilagunari gertatua **gerta ez dakizun**, itxi ondo atea, eta koltxoi haundi bat ipini atearren kontra. Hartara, lapurren bat isil-antzean sartzen bada, ahozpez erori eta lozorroan hasiko da. Zurrungaka hastean, baratxuri-zopaz igurtzi ezpainak.

GEMINI

Maiatzaren 21etik Ekainaren 21era

Pertsona egokia ezagutzeko aukera, luzarorako laguna izan litekeena gainera. Oinez zoazela semaforo gorria pasatzerakoan, behatopatu egingo duzue. Betaurrekoak erori eta txikitu egingo zaizkio. **Otoi!** Barkamena itxuraz eska jezaiozu.

CANCER

Ekainaren 22tik Uztailaren 22ra

Eguna alferrik galdu duzula uste izango duzu. Horixe duzu zuk, izan ere, **leloa!** Zeure buruari gehiegi eskatzen diozulako gertatzen zaizu hori. Zer demontre! Iratzargailua bota leihotik behera!

LEO

Uztailaren 23tik Abuztuaren 23ra

Ornitologiak txundituko zaitu. **Hitana** ondo ikasi hegaziak bikoteka hasten direnerako. Hotzikarak hartuko zaitu haien mintzaira ulertzen duzula oharztean. Alabaina emeei **NOKA** hitzein behar diezu eta **arre!** TOKA.

VIRGO

Abuztuaren 24etik Irailaren 23ra

Etiket irten aurretik ohea behinik behin egingo al duzu? Aste betean ez duzu **egurastu** logela eta **kiratsa** dario. Zuk egin ezean, astindu ederra eman beharko dio besteren batek. Arrosa koloreak zorte ona iragarriko dizu.

LIBRA

Irailaren 24etik Urriaren 23ra

Begia bota diezun zapatak estu xamar izanagatik ere, eros itzazu, ibili **eman** egingo baitute. Lanpostu berrietara aurkezteko aproposak. Eta segetua hementxe duzu: olio zaharrez igurtzi-igurtzi egin, eta lehortzen utzi ondoren. Lantegiko nagusiari zure zapatetara joango zaio **soa**, eta liluraturik utziko duzu.

SCORPIO

Urriaren 24etik Azaroaren 22ra

Ez ibili **itzulinguruka**; gauzak zuzenago esaten ikasi behar duzu. Orduan iritsiko duzu zeure aspaldiko desioa. Ilargiak lagunduko dizu horretan, indar berezia **igorriko** baitizu. Eta, **burua makur**, eman lezaizkiozu eskerrik beroenak.

SAGITARIUS

Azaroaren 23tik Abenduaren 21era

Har ezazu behar duzun denbora, patxadan eta lasai. Erabaki garrantzitsua hartu beharko duzu. Agian erabateko aldaketa zure bizitzan. Dena dela segi aurrera. Hori bai, erabakia ez bakarrik hartu.

CAPRICORN

Abenduaren 22tik Urtarrilaren 20ra

Bazkalondoa duzu momenturik egokiena gauzak **zirt-zart egiteko**. Hiltzea erabaki baduzu, aurrera; zeuk jakingo duzu zergatik egiten duzun. Espetxeetan aspaldian biziki ongi ematen dute jaten. Sukaldaria lagun min egingo duzu.

AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik Otsailaren 19ra

Leihoak aldatzearekin ez duzu asmatu. Kaleko pausu-hotsa bera ere hurrean entzungo duzu. Euliek gogoko pausalekua izango dute oraingoa eta lo hartu ezinik ibiliko zara arik eta euli-furrundak arintzen diren arte. Madarikazioak ikasteko aukera aparta.

PISCIS

Otsailaren 20tik Martxoaren 20ra

Non zaude, ene Libra maitea? Nolakoak dira zure begiak? Nolako zure **irribarre**? Non dira zure ezpain-**mihiak**? Ikusi nahi eta inondik inora ez zaitut **atzematen**. **Iheskorra** al zara baina? Otoi, zain egongo naitaizu gaueko ordu alferretan. Badakit gaur zarela etortzekoa.

USTEAK ERDIA USTEL. - Espero duguna ez dela osorik gertatzen adierazteko erabili ohi den esaera.

LELO. - Etribillo.

EMAN. - Lasaitu. Ceder.

SO. - Begirada. Mirada.

ZIRT-ZART EGIN. - Erabakia hartu.

GERTA EZ DAKIZUN. - Para que no te suceda.

HITANO. - Lagunartean hitz egiteko modu berezia.

NOKA. - Emakumeekin hitz egiteko modu berezia.

AR. - Macho.

ITZULINGURUKA. - Dando rodeos.

IGORRI. - Bidali. Enviar.

BURUA MAKUR. - La cabeza baja.

OTOI! - Mesedez, arren. Por favor.

EGURASTU. - Haizeberritu, oreatu. Ventilator.


KIRATS. - Hedor.

IRRIBARRE. - Barremurria. Sonrisa.

MIHI. - Mingaina. Lengua.

ATZEMAN. - Harrapatu. Coger.

IHESKOR. - Huidizo/a.



HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO